






GIPUZKOA
zurekin, aurrera >

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA
DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA
ESTRATEGIA BULEGOA. Lehen Diputatu Nagusiordea.
OFICINA ESTRATÉGICA. 1^o Teniente de Diputado General.

estrategia



Lurralde- prospektibaren alorreko gako-hitzak

1

2010 eko ekaina

Gipuzkoako Foru Aldundia
Estrategia Bulegoa • www.gipuzkoaestrategia.net

Jatorrizkoaren itzulpena

“Les mots-clés de la prospective territoriale”

Zuzendariak: Philippe DESTATTE eta Philippe DURANCE

TRAVAUX bilduma

Bildumaren zuzendaria: Patrick Crézé

Pilotaje-batzordea: Stéphane Cordobés, Philippe Matheron, Florian Muzard, Muriel Thoin.

Euskarazko bertsioa

Izenburua “Lurralde-prospektibaren alorreko gako-hitzak”

Diseinu grafikoa: TXAKEL (Azpiazu y Urarte S.L.).

Bilduma berean

- 1.zk** Logistika eta lurraldea
- 2.zk** Proiektu askoko eskualdea: Parisen etorkizuna
- 3.zk** Frantziako hiri ertainak, errokak eta aukerak (agortuta)
- 4.zk** Ebaluazioa eta lurraldeak
- 5.zk** Eskualde-metropoli ertainak Frantzian
- 6.zk** 1990 / 2004 garaiko eraikuntzaren lurralde-dinamikak
- 7.zk** Lurraldeak eta ziberespazioak 2030ean
- 8.zk** Periurbanizazioa: problematikak eta aukerak
- 9.zk** 2005-2008 garaiko lehiakortasun-poloen ebaluazioa

Emilio Fontela-ri (1938-2007)



hitzaurrea

Lurralde Prospektibaren Europar Elkargoa 2004ko apirilean sortu zen, Lurraldeen Antolamendurako eta Lehiakortasunerako Ministerioarteko Delegazioak (DIACTek, DATAR ohiak) bultzatuta. Hogeita zazpi kideko Europaren hogeita hamar lurralde-eragile inguru biltzen ditu, baita Ipar Amerika, Hego Amerika eta Afrikako eragile batzuk ere. Hala, bitarteko baliagarria da Europako lurralde-prospektibaren sareentzat, eta frantsesa eta ingelesa ditu lan-hizkuntzak.

Garai hartan, DIACTen asmoa zen Europako lurralde-prospektibaren eragileak elkartzeko eremua sortzea, haien jarduerak eta esperientziak kapitalizatzen, eta trukeak eta analisiak errazteko; hau da, lurralde-prospektibaren alorrean jardueren eta eza-gutzen komunitatea sortzeko ahalegin aktiboa egitea, horrela sortutako baliabideetara errazago iristeko. Horretarako, helburu hauek hartu zituen Elkargoak beregain: lurralde-prospektibaren kontzeptuak, metodoak eta esperientziak zehaztea; Europako lurraldeen eta haien prospektiba-planteamenduen bilakaerari buruzko zainketa- eta truke-sare bat antolatzea Europan; eta, azkenik, lurralde-eragileei Europako jardunbide egokien zerrenda helaraztea.

Lan-esparru horretan, Elkargoak lurralde-prospektibari buruzko datu-base bat sortu zuen, eta editatzen eta hedatzen ari den glosario bat idatzi zuen. Argitalpen hau glosario horretako hitzen hautaketa da; izan ere, lurralde-prospektiban jarduten dutenek

eta, oro har, lurralde-eragileek funtsezkotzat dauzkate hemen agertzen diren hitzak.

Argitalpen honek, beraz, ezer baino lehen, xede praktikoa du; hala, prospektiba-ariketetan jardungo dutenak lagundu ditzaketen hitzak agertzen dira, nagusiki. Aukera oro bezalaxe, hemen egindakoa ere eztabaidagarria da. Beste hitz batzuk sar zitezkeen. Agertzen diren hitz batzuk gehiegizkoak edo alferrikakoak direla pentsa daiteke. Baina aukeraketa hau egin duen europar taldeak prospektiba eta foresight anglosaxoia uztartzeko ahalegina egin du, egun gerturatzan ari direla kontuan hartuta.

Bestalde, liburu hau argia, praktikoa eta pedagogikoa izateko moduko aukerak egin ditu DIACTek, ahalik eta jende gehienak uler dezan prospektiba zer den eta alor horretan erabiltzen diren terminoak, batzuetan ilunak izan daitezkeen arren. Asmo horrek, gainera, prospektiba-ariketen aurrealdintzei erantzuten die: parte-hartzaile guztiek hizkera bera erabiltzen dutela segurtatzea, hitzei esanahi bera ematen dietela segurtatzea eta, ondorioz, elkar ulertzeko moduan daudela etorkizun komuna eraikitzen pentsatu aurretik. Argi dago hitz horiek hiztegi hau zilegitzeko besteko garrantzia dutela prospektiban.


Prospektiba orokorraren eta lurralde-prospektibaren arteko banaketa-ildoak arazoak sor zitzakeen. Halere, Elkargoak erabaki du lurralde-prospektiba prospektiba orokorraren aplikazioa baino ez dela jotzea, eta ez duela ez kontzeptualizazio berezirik, ez metodologia-tresna berezirik ere eskatzen; ez,

behintzat, azaleko kontuetan. Beste prospektibamotekin eta, batez ere, enpresa-prospektibarekin alderatuta dauden ezberdintasunak, hein handi batean, eragiketa-moduak baldintzatzen dituzten erronken izaerari dagozkio.

Termino bakoitzaren ingeles, aleman, gaztelania eta italierazko baliokideen ondotik, hitzaren definizio labur bat agertzen da, baita terminoaren erabilera edo hedadura zehazten duten komentarioak ere —batez ere lurralde-planteamenduari dagozkionak—. Horiez gain, bibliografia aukeratuarekin eta aurkibidearekin batera, lurralde-prospektibaren eragileentzako baliabideak (artikuluak, liburuak, ikerketak, softwareak, etab.) era askean eskaintzen dituzten gune batzuk ere proposatzen dira.

Stéphane Cordobes,

DIACTeko kontseilaria eta prospektibaren eta ikerketen arduraduna



aurkibidea

• Sarrera	8
• Gako-hitzak	10
• Bibliografia	32
• Baliabideak eta esteka erabilgarriak	34
• Lurralde Prospektibaren Europar Elkargoaren kideen zerrenda	36
• Aurkibidea	37

Prospektibaren kontzeptualizazioaren bilakaera hobetzea

Askotan esaten da prospektibak ziurgabetasuna hautemateko eta problematiken konplexutasunari neurria hartzeko gaitasuna duela. Prospektibaren xede horiez gain, Bade-Wurtembergeko gure lankide Günter Clar-ek anbiguotasuna murrizteko gaitasuna ere aipatzen du; hau da, eragileek erabilitako hizkeraren eta hitzen izaera ekiboko, ilun eta zehaztugabearen anbiguotasuna murrizteko gaitasuna.

Beraz, horretarako, premiazkoa da prospektibak berak ez areagotzea alderdien polisemia kontzeptu lauso eta gaizki definituak erabiliz.

Lurralde-prospektiban kontzeptu-base benetan komun eta partekatua sortzea erronka handia da. Hiru arrazoi nagusi direla eta. Batetik, prospektiba —duen adina izan arren— planteamendu berria, berritzailea, diziplinarik gabea eta probokatzaila da oraindik; etengabeko ikerketan dabilena, batez ere bere buruaren ikerketan. Jar dezagun, beraz, diziplina ez dagoela oraindik egonkortuta —Michel Godetek *indiziplina* dela esango luke—, eta ikerlari eta praktikanteen arreta osoa beharrezkoa duela.

Bigarrenik, kontzeptu-base hau sortzea erronka handia da, prospektiba asko aldatzen ari baita Europan —baita munduan ere—, *foresight* anglosaxoiarengana gerturatzen ari baita. Gerturatze hori 1990eko hamarkadaren bukaeran hasi zen, Europako Batzordeak bultzatuta. Horri esker, sendotu egin da *foresight*-aren gizarte-izaera eta diziplinarteko-izaera, eta prospektibaren ustiagarritasunak gora egin du. Seguru asko, lehiakortasunaz eta berrikuntza teknologikoaz kezkatuta zeuden unibertsitate-sareen eta lurraldeetan jarduten zuten garapen-eragileen arteko elkarrizketa azkartu du. Europako eskualdeetako eta lurraldeetako politiken eragina gero eta handiagoa dela kontuan hartuta, Europako hainbat herritako prospektibagileen elkar-goari prospektibaren kontzeptuak eta metodoak lantzea ahalbidetzen dion planteamenduari esker, biharko prospektiba aurreikus daiteke. Azkenik, kontzeptu-base hau funtsezkoa da; izan ere, gobernu-tresna den aldetik prospektibak elkarrekintza eragiten du garai, erritmo eta kultura bakoitzean

bizi diren gizarte-esparruen artean —eremu publiko, eremu pribatu eta gizarte zibilaren artean—. Metodoari lotutako hitzek esanahi zehatza dute, eta esanahi horren interpretazioa aldakorra da eremu batetik bestera. Horrek, ordea, zaildu egiten du elkarren arteko ulergarritasuna eta oztopatu egiten du inteligentzia kolektiboa.

Eguneroko praktikaren eta hausnarketen bidez, prospektibagileek, direla aldi baterakoak, direla profesionalak, beren erreferentzia-esparru propioa eraikitzen dute, eta beren prestakuntza, ezagutza eta esperientziaren arabera onartu edo sortu dituzten kontzeptuak antolatzen dituzte. Hala, beren lexikoa sortzen dute, eta, ondorioz, bakoitza erreferentzia original bat bihurtzen da; horrek, du-darik gabe, traba egiten dio praktika zientifikoa garatu nahi duen komunitate baten garapenari.

Glosario komuna sortuz, Prospektibaren Europar Elkargoaren xedea ez da ahalmen sortzaile hori deuseztatzea, ezta berezitasunak berdintzea ere, baizik eta hizkera komuna erregistratzen laguntzea. Lan hau, beraz, Europako prospektibagileen arteko elkarrizketa luzearen ondorioa da; izan ere, haiek ere prospektibaren munduko komunitatearengana irekitzeko asmoa erakutsi dute, lankide iparramerikar eta hegoamerikar, australiar, arabiar eta afrikararengana, batik bat. Elkarrizketa ingelesez eta frantsesez egin da, baina prospektiba beste hizkuntzetan eta herrietan nola planteatzen eta adierazten den ikasketeko jakin-min etengabearekin.

Denbora asko eskaini diogu, beraz, ulertzeari, trukatzeari eta formulatzeari, besteen hitza errespetatuz; prospektibagileek, berriz, beren lurraldeetan eta erakundeetan eguneroko lanean ikasi dute egiten. Lan honen fruitua aztertutako 150 kontzeptu inguruk osatzen dute. Gure ustez lurraldeetarako baliagarrienak direnak azaldu ditugu hemen, bertsio arin eta ulerterrazean. Aleman, ingeles, gaztelania eta italierazko baliokideak erantsi ditugu, prospektibari buruzko mugaz gaindiko eta eskualdeen arteko

elkarrizketa errazte aldera. Baliokide horiek adierazten dute, batez ere, kontzeptuek definizioak hizkuntza horietan pentsatuak izan direla, eta kultura horiek guztiek berdin ulertzen dituztela. Eraitza horren bidez, egindako lanaren aberastasuna neur daiteke.

Taldeko lana izan arren, glosario hau pertsona jakin batzuen konpromisoak ahalbidetu du. Eskerrik asko haiei, beraz. Lurraldeen Antolamendurako eta Lehiakortasunerako Ministerioarteko Delegazioari dagokionez, esker bereziak adierazi nahi dizkiogu Sylvie Esparre andereari. Izan ere, ikerketen eta prospektibaren zuzendariak hiru urtez lagundu ditu DATAR zientzia-batzordeak Michel Godeten zuzendaritzapean 2004ko apirilaren 1ean sortutako Lurralde Prospektibaren Europar Elkargoaren lanak. Nathalie Leroux eta Nacima Baron-Yelles andereak solaskide adikorrak izan dira, eta Stéphane Cordobès eta Florian Muzard jaunek —ikerketen eta prospektibaren arduradun berriak eta misio-arduradunak, hurrenez hurren— argitalpen hau ahalbidetu dute.

Lurralde Prospektibaren Europar Elkargoko kide guztien zerrenda txosten honen bukaeran dago; baina esker bereziak eman behar dizkiegu lankide haiei, kide oso edo berriemaile izan, lanean izan duten parte-hartzeagatik: Mika Aaltonen (Helsinki University of Technology, Finlandia), Démosthène Agrafiotis (Osasun publikoaren eskola nazionala, Atenas, Grezia), Eleonora Barbieri Masini (Erromako unibertsitate gregoriar pontifikala, Italia), Ane Bustinduy (Prospektiker eta LKS, Espainia), Riccardo Cinquegrani (Erromako unibertsitate gregoriar pontifikala, Italia), Günter Clar (Steinbeis Europa Zentrum, Stuttgart, Alemania), Júlio G. Dias (Instituto Europeu de Estudos Superiores e Formação), Emilio Fontela (+) (Antonio de Nebrija Unibertsitatea, Madril, Espainia), Adam Gerber (University of Houston Clear Lake, Estatu Batuak), Michel Godet (Arteen eta Lanbideen Kontserbatorio Nazionala, Paris, Frantzia), Pierre F. Gonod (Nazio Batuetako eta Plangintzako Komisaria Nagusiko jubilatutako aktiboa, Paris, Frantzia), Kais Hammami (Arteen eta Lanbideen Kontserbatorio Nazionala, Tunisia), Hugues de Jouvenel (Futuribles, Paris, Frantzia), Guy Loinger (OIPR eta Paris I unibertsitatea, Frantzia),

Riel Miller (XperidoX, Paris, Frantzia), Erik F. Øverland (Subito, Oslo, Norvegia), Ute-Hélène von Reibnitz (Scenarios + Vision, Frantzia), Saphia Richou (Arteen eta Lanbideen Kontserbatorio Nazionala, Paris, Frantzia), Gerda Roeleveld (VROM, Haga, Herbehereak), Karlheinz Steinmüller (Z_Punkt, Berlin, Alemania) eta Kimon Valaskakis (Club d'Athènes, Kanada).

Liburuxka hau etapa bat baino ez da, bibliografian aipatutako beste hainbaten ondorengoa. Lehenik eta behin lurralde-eragileentzako denez, glosario hau lan-tresna gisa hartzeko eskatzen diegu; hau da, saiatzeko, zuzentzeko eta iradokizun, kritika eta galderen berri emateko. Komentarioak Lurralde Prospektibaren Europar Elkargoari helaraziko dizkiogu, eta, hala, elkarrekin, prospektibaren kontzeptualizazio-lana hobetuko dugu.

Philippe Destatte

(Destrée institutua, Namur & Paris Diderot Unibertsitatea – Paris 7), Lurralde Prospektibaren Europar Elkargoko presidentea (destatte.philippe@institut-destree.eu).

Philippe Durance,

(Arteen eta Lanbideen Kontserbatorio Nazionala, Paris) Lurralde Prospektibaren Europar Elkargoko berriemailea (philippe.durance@cnam.fr).



Adarkatzea

Beste hizkuntzetako baliokideak

Ingelesa: Bifurcation, singularity, counterfactual, turning point

Frantsesa: Bifurcation

Alemana: Scheidepunkt, Bifurkation (gutxi erabilia), Verzweigung
Gaztelania: Bifurcación

Gaztelania: Bifurcación

Italiera: Biforcazione, Bivio

Definizioa

Bide bat baino gehiago har ditzakeen aldagai edo sistema batean aukera bakarra gertatzen den unea.

Iruzkina

Kontzeptua Henri Poincaré-k (1854-1912) eta, ondoren, Ilya Prigogine-k (1917-2003) garatu zuten. Azken horren iritziz, batez ere oreka ezaren fisikan landutako adarkatzeekiko parekatzea dator berehala gogora. Sistema batek daraman bidea adarretan banatzen den puntu berezietan agertzen dira adarkatze horiek. Adar guztiak dira posible, baina bakarra gertatuko da. Gehienera, adarkatzeak ez dira banaka gertatzen: adarkatze-segidak izaten dira. Hortaz, esan daiteke alderdi historikoa, narratiboa, dagoela, baita funtsezko zientzietan ere. "Segurtasunen bukaera" da (Prigogine, 2006).

Lurralde-prospektibaren alorrean, adarkatzeak identifikatzeak garrantzi handia du aldagaien bilakaera-hipotesiak eratzeko eta agertokiak eraikitzeko. Gertakari txikienek ere adarkatzeak, haustura, eragin ditzakete (etorkizuna dakarten gertakariak izaten dira).

Beste definizio batzuk

"Adarkatze" deitzen zaio egoera berri bat posible bihurtzen hasten den hasierako puntu kritikoari.

Ezgonkortasun-puntuaren inguruko asaldura infinitesimalak sistema baten funtzionamendu makroskopikoa zehazten badute, ezgonkortasun-puntu horiek adarkatze-puntuak izango dira (Prigogine, Stengers, 1979, 167).

Ekuazio edo arazo batean soluzio posible bat baino gehiago dituen edo etorkizun posibleak bizikidetzan ugaritzen diren eremu adarkatzea (Stengers, 1987, 18-19).

Adierazlea

Beste hizkuntzetako baliokideak

Ingelesa: Indicator, variable, factor, metric

Frantsesa: Indicateur

Alemana: Indikator

Gaztelania: indicador

Italiera: Indicatore

Definizioa

Aldagai baten neurri kuantitatibo edo kualitatibo normalizatu eta onartua.

Oharra

Adierazle bat izan daiteke sinplea (adibidez, udalerrri bateko biztanle berrien urteko kopurua) edo konposatua (Europako metropolien erakargarritasun-indizea). Adierazleek aztertzen diren aldagaien jokabideak eta dinamikak jasotzea ahalbidetzen dute.

lido horretan, berebizikoa da aldagaiak ondo aukeratzea. Aldagai batek honako ezaugarri hauek izan beharko lituzke (Europako Batzordea, 1999): – sinplea izatea: erraz uler eta komunikatu daitekeen informazioa ematea. – egokia izatea: hain zuzen, neurtu beharrekoa islatzea. – fidagarria izatea: espazioan eta denboran konparatzea ahalbidetzea. – sentikorra izatea: bazterreko aldaketak agerian uztea. Adierazle bati "konposatu" edo "konposite" esaten zaio zenbait aldagairen neurri ugarirekin lotuta dagoenean. Hartara, adibidez, Nazio Batuen Garapenerako Programak garatutako Giza Garapenaren Adierazleak munduko herrialdeak hierarkizatzea ahalbidetzen du, bizi-itxaropenaren, alfabetatzearen, eskolatzearen eta BPGaren arabera. Gauza bera egiten du Millenium Project-ek garatutako State of the Future Index adierazleak. Agertoki-metodoen esparruan, aztertzen den sistema deskribatzen duten aldagai guztiak aldagai batekin edo zenbaitekin deskriba daitezke.

Beste definizio batzuk

Peter Lazarsfelt-en hitzetan, adierazle bat da behatu eta ikus daitekeen oro eta erabakiak hartzen lagundu dezakeen dimensio sakonagoa adierazten duen oro da (Barbieri-Masini, 2000, 102. or. - Lazarsfelt eta Bauer, 1966)

Adimen kolektiboa

Beste hizkuntzetako baliokideak

Ingelesa: Collective intelligence

Frantsesa: Intelligence collective

Alemana: Kollektive Intelligenz, Kollektives Wissen

Gaztelania: Inteligencia colectiva

Italiera: Intelligenza collettiva

Definizioa

Pertsona-talde antolatua, dokumentatua eta bideratu batek elkarrekin intelektualki eta sentikortasunez eragiteko duen gaitasuna, halako moldez non lankidetzaren emaitza sormen handiagokoa, berritzaileagoa eta egokiagoa baita banakoen ekoizpen guztien batura baino.

Oharra

Adimen kolektiboaren gaiari buruz lan ugari idatzi dira azken berrogei urteetan. Gai komun bat jorratzen dutela ematen du, izendapenak desberdinak erabiltzen dituzten arren: «noosfera» Teilhard de Chardin-ek, «adimenaren ekologia» Gregory Bateson-ek, «adierazpenen ekologia» Dan Sperber-ek, «gai kolektiboa» Michel Serres-ek, «zibiontea» Joël de Rosnay-k, «adimen konektiboa» Derrick de Kerckhove-k, «adimen kolektiboa» Pierre Lévy-k, eta abar.

Adimen kolektiboa gizakien arteko adimen-lankidetzaren (azkenik teknikoki konplexuagoa den ingurunean) aztertzeko helburua duen ikerketa-esparrua da. Esparru hori diziplina anitzekoa da berez eta lehendik ezarritako zientzietan bermatzen da, bai bizitza-zientzietan, bai gizarte-zientzietan, gizakiaren ezagutzen arteko elkarrizketa ezartzeko, ikaskuntza eta sorkuntza kolektiboaren prozesua hobeto ulertze aldera. Adimen kolektiboa mobilizatu egiten da prospektiban, batez ere prospektibantegi esparruan edo Delphi sareenean, ikuspuntuak biderkatzeko, zeharkakotasunak aktibatzeko eta antolaketa- eta jabetasun-ikaskuntza indartzeko gaitasunari esker. Animazio- eta sormen-teknikek eta metodoek lagundutako interakzioetatik sortzen da adimen kolektiboa.

Agertokia

Beste hizkuntzetako baliokideak

Ingelesa: Scenario, story, narrative, outcome, path

Frantsesa: Scénario

Alemana: Szenario, Szenario-Methode

Gaztelania: Escenario

Italiera: Scenario

Definizioa

Sistema baten berezko mekanismo eta prozesuak denboran simulatzea, fase sinkroniko eta diakronikoaren segidaren bidez. Sistemaren une jakin bateko deskribapen koherentea da agertokia, baita azken egoerara daraman bidearen deskribapen koherentea ere.

Oharra

Esploraziozko agertokia (etorkizunaren ikuspegi posible bat adierazten duena) eta arauzko agertokia (litezkeen etorkizunetik etorkizun desiragarriaren aukeraketa adierazten duena) bereiztea komeni da.

Kontrastatua (borondatez muturreko gai bat esploratzen badu), joerazkoa (joera jakin batzuk esploratzen baditu) edo erreferentziazkoa (probabilitate gehien duena bada, joerazkoa izan edo ez) izan daiteke agertokia.

- Gertatzeko aukera duen eta aurreikusi ezin den jazoera (Gras, 1979).

Lurralde-prospektibaren arloan, garapenerako proiektuak taxutzeko orduan historiari ikasgaiak atera eta lurraldeak konparatu ordez, sistematikoki agertokietara jotzea ohiko itzulgingurua da (Godet, 2004). Prospektiba eta agertokia ez dira sinonimoak; azken horiek ez dute interes handirik ez bada egokiak (ez bada galdera egokiak egiten), koherenteak edo egiantzekoak. Hain zuzen ere, agertoki desiragarriak kolektiboki eraikitzeak terapia kolektibo gisa jardun dezake baina, kasu horretan, emaitza (agertokia) ez da horretara daraman prozesu kolektibo bezain garrantzitsua. Nahiz eta baterako etorkizunean hausnartu, galdera egokiak egin behar dira, adostasunik ez dutenekin hasita; izan ere, horiek bultzatzen dituzte ohiurak eta ezarritako ordena. Prospektiba- eta estrategia-prozesuak lotuta badaude, bananduta mantentzen dira eta ondo bereiztea komeni da: aurrerapen-denbora, hau da, izan litezkeen aldaketa desiragarrien prospektiba; ekintzak prestatzeko denbora, hau da, espero diren aldaketarako prestatzeko edo aldaketa desiragarriak sustatzeko izan litezkeen aukera estrategikoak taxutzea eta ebaluatzea.

Beste definizio batzuk

Etorkizuneko egoera bat eta hara daraman bidea deskribatzen duen horizonte jakin bateko aldagai-eboluzioari buruzko hipotesiak modu koherentean gauzatzea.

Ahalmen sortzailea

Beste hizkuntzetako baliokideak

Ingelesa: Creativity

Frantsesa: Créativité

Alemana: Kreativität, (adibidez, honi lotuta) Ideenfindung

Gaztelania: Creatividad

Italiera: Creatività

Definizioa

Pertsona edo taldeei ideia originalak sortzea edo lehendik dauden ideia edo kontzeptuen artean lotura berriak eraikitzea ahalbidetzen dien adimen-prozesua.

Iruzkina

Ahalmen sortzailea prozesu kognitiboekin, gizarte-ingurumena-ekin eta nortasunarekin lotuta dago. Jenioari lotuta erabiltzen da, askotan artearen eta literaturaren alorretan, baita azkenaldian berrikuntzaren eredu ekonomikoaren alorrean ere. Gizaki guztiak dute ahalmen sortzailea; baina, askotan, ez dakite zuzen zein diren ahalmen horren eremuak, ezta nola adieraz dezaketen ere. Ahalmen sortzailearen alorreko metodo eta teknika askok eta askok pertsonen edo taldeen ahalmen sortzailea areagotzen laguntzen dute. Bestalde, ahalmen sortzailea berrikuntzaren eta prospektibaren funtsezko atala ere bada. Prospektibaren alorrean, ahalmen sortzaileak asko laguntzen du uneko testuinguruaren mugak gainditzen eta etorkizuneko balizko bilakaerak asmatzen. Hala, prospektiba eta ahalmen sortzailea elkarren osagarriak dira, eta aurrea hartzeko eta etorkizuneko aldaketak prestatzeko prozesuan ezinbestekoak dira.

Aierua

Beste hizkuntzetako baliokideak

Ingelesa: Conjecture, hypothesis, assumption

Frantsesa: Conjecture

Alemana: Vermutung, Annahme, Hypothese

Gaztelania: Conjetura

Italiera: Congettura

Definizioa

Etorkizun egiantzekoaren eraikuntza intelektuala, beharrezkotzat eta egokitzat jotako harreman kausalen eredutik abiatuta.

Iruzkina

Bertrand de Jouvenel-en iritzi (1964), *gure irudimenak* etorkizun posibleak *eraiki behar ditu preferentziaren bidez* [hau da, iraganeko gertakarien arabera (*facta*) etorkizuneko gertakaria (*futurema*) asmatzeko adimen-prozeduraren bidez]. Etorkizun posibleak *gutxi* ala *asko ezagutzen diren egungo egoeren ondorengo posibletzat jotzen du preferentziak futurema*. Etorkizun egiantzekoaren eraikuntza intelektuala *arte-lana da zentzu hertsian*. *Horri deitzen diogu hemen aierua*.

Ingalaterran, hitzak zentzu gutxiesgarria du, "espekulazioa" ren parekoa. Grezian, ostera, hitza Aristotelesen *kairos*-arekin lot daiteke; hau da, *une ona, ahalera*. Frantzian, hitza erabili egiten da, baina gehienetan era gutxiesgarrian, "mila dorre eta gaztelu egin" esaeraren atzera. Aldiz, zientziaren alorrean, kontzeptua oso garrantzitsua da: Karl Popperrek (1902-1994), esaterako, asko erabiltzen zuen. Aierua azalpen-hipotesia da. Etorkizuneko hipotesiak eraikitzean datza, hipotesiak gertagarriak, egiantzekoak ala bestelakoak izan. Espainian ere, hitza, testuinguru arruntan erabilia, gutxiesgarria da; intuizioari, informazio faltari lotua.

Aldagaia

Beste hizkuntzetako baliokideak

Ingelesa: Variable

Frantsesa: Variable

Alemana: Variable

Gaztelania: Variable

Italiera: Variabile

Definizioa

Aztertzen den arazoan eragina duen edo izan dezakeen sistemako elementua.

Oharra

Aldagai bat ez da errealitatea, errealitatea behatzeko modu bat, adierazpen bat, baizik. Munduaren ikuspegi sistemikoan, aldagai bat bere erlazioengatik bakarrik existitzen da.

Aldagai independenteek (edo argitzaileek) aldagai dependenteak (edo bigarren mailako aldagaiak) azaltzen dituzte (Lugan, 2006, 94. or.).

Alderantziz, inbariante esaten zaie aldi jakin batean konstante mantentzen diren elementuei. Inbariantea "lan sineskor" deritzonaren oinarria da. "Lan sineskorretatik" arruntena estrapolazioa da. Aurreikuspen ugari lotzen zaizkio funtsezko bi muga dituen prozedura horri: lehen muga da bermatzen garen iraganeko segiden aukeraketa ausazko edo arrazoitua; bigarrena, hala jarraigabetasun- eta haustura-faktoreen gainean sortzen den oztopoa. Denbora-eskalaren (horizontea) edo erabilitako espazioaren arabera, inbariantearen egoera aldatu egin daiteke eta bariante bihurtu. Inbariante-izaera behatzailearen "ikuspegiaren" eta une jakin batean dituen ezagutzen mende dago.

Beste definizio batzuk

Aldi jakin bateko konstantea.

Alderdi interesatua

Beste hizkuntzetako baliokideak

Ingelesa: Stakeholder

Frantsesa: Partie prenante

Alemana: Stakeholder, Beteiligte und Betroffene

Gaztelania: Parte interesada

Italiera: Portatori di interesse, Stakeholder

Definizioa

Erakunde, enpresa edo lurralde baten garapen edo etorkizuneari interesa, zuzena edo ez, duen eragile oro (banakoa, multzoa edo erakundea).

Oharra

Kontzeptu hori, hasiera batean, enpresa-gobernantziaren eta gobernantzia publikoaren esparruan garatu zen, batez ere ebaluazioari dagokionez. Hala, ELGAREN PUMA programak honela definitu ditu alderdi interesatuak: ebaluatzen den politikan edo programan, orobat ebaluazioaren emaitzetan, interesa duten partikularrak edo erakundeak. Alderdi interesatuak eta erabiltzaileak maiz berdinak izaten dira. (*Ebaluaziorako jarraitu beharreneko praktika onenen gida*, PUMA, 5. laburpen-oharra, Kudeaketa Publikoaren Zerbitzua, 1998ko maiatza).

Kontzeptu hori bereziki erabilgarria da prospektiban, ariketa prospektiboan partaide egokiak egotea bermatzeko. Prospektiba-ariketa baterako partaideen aukeraketari buruzko galdera egiten du.

Arazoa / Problematika

Beste hizkuntzetako baliokideak

Ingelesa: Problematique, Problem

Frantsesa: Problème, problématique

Alemana: Problem, Problemkomplex

Gaztelania: Problemática, Problema

Italiera: Problema, Problematica

Definizioa

Prospektibagileari edo hori identifikatzen duenari eta hori eramanen denari egiten zaion zehaztasunez erantzun beharreko galdera. Egituraz elkarri lotuta dauden arazoen multzoa da pro-

blematika.

Oharra

Lan zientifiko orotan, *problemizazioaz* aritzen gara, hau da, arazoa eratzearaz, galdetzeko gaitasunaz. Aurelio Peccei prospektibagile italiarrak (1908-1984), Alexander King-ekin batera Erromako Kluba sortu zuenak, "problematika" hitza erabil izuen 1969az geroztik arazo globalen izaera erlazionatua eta konplexua adierazteko.

Sistemaren konplexutasunaren aurrean, prospektibistak eztabaida antolatu behar du eta problematika eta arazo zehatz edo gurutzatuak identifikatu behar ditu. Problema berekin dakar:

- "errealitatea" irakurtzeko diskurtsoak edo moduak egotea;
- diskurtsoaren ordenaren, diagnostiko edo pentsamenduaren eta gauzen ordenaren arteko tentsioa;
- metodo edo bideratze zehatz baten bidezko soluzio posiblearen ikuspegia;
- eztabaida eta horren ondorioak aurrera ateratzeko gai diren indibiduen komunitatea;
- ekintza kolektiboaren eta praktika-fundazioaren zilegitasuna ematen duen ingurune kulturala.

Etorkizunari buruzko problematikak taxutzeko prozesutzat har liteke prospektiba, "galderak eta erantzunak" eraldaketa-egoera etengabe eta mugagabe baldin badaude.

Gure gizarteetan, inguruneko arazoak eta soluzioak taxutzeko ondo gauzatutako erreferentzial edo axiomatika, edota ondo adierazitako logika, behar da.

Beste definizio batzuk

Arazoa honela defini daiteke: lortu nahi diren helburuen eta ingurunearen irudiaren arteko tentsio-egoera, hau da, egoera desiragarriaren eta hautemandako egoeraren arteko tentsio-egoera (Pierre Gonod, 2001, 5. or.).

Ikertzaile batek aztergaitzat aukeratu dituen objektu edo fenomenoei buruz egiten dituen galderen eta egiaztapen metodiko baten bidez testatuko dituen erantzun hipotetikoen multzoa (Serge Diebold, 2007).

Atzera begirakoa / Historia

Beste hizkuntzetako baliokideak

Ingelesa: Hindsight, historical view, retrospective

Frantsesa: Rétrospective, Histoire

Alemana: Retrospektive, Rückschau

Gaztelania: Retrospectiva

Italiera: Retrospectiva / Storia

Definizioa

Atzera begirakoak iraganeko jazoera eta eboluzioetarako itzuleraren metodoa esan nahi du; historia, berriz, metodo sistematiko eta zorrotzaren bidez lortutako giza iraganari buruzko ezagutza da.

Oharra

Gai edo galdera bati buruzko azterketa diagnostiko orok esploraziozko prospektibaren metodoekin aztertuko den horizontea bezain luzea den aldi baterako itzuleraren behar du, gutxienez. André-Clément Decouflék honako hau nabarmendu zuen: *Etorkizunera begirako espekulaziotik edozein arretarekin bereizita ere, prospektibak saihestu beharreko tranpa gehiegi ditu historia ez ezagutzeagatik zigorrik gabe bekatu egin ahal izateko. [...] Baldintza horietan, nekez agertzen da paradoxa bat, lehen helbu-*

rutzat "iraupen luzearen" unea deskribatzea izendatzen ez zaion prospektiba ez bada, eta horrek ez luke inolako balio heuristikorik izango. [...] Diskurtso baten tarterako iraupen luzea hartzea ikuspegi baten zabaltasun osoa kontuan hartu beharra onartzea da. Hasteko, ikuspegia berreraikitzea da, itxuraz finkoak diren elementu datatuetatik —kronika historikoaren moduan nabarmendu direnak (jazoeren segida ezartzea) eta, zalantzarik gabe, funtsean mugigarriak— abiatuta" (Decouflé, 1972, 81-82. or.)

Gaston Berger-ek (1959) honako hau nabarmendu zuen: "Ikuspegi ugaritan, prospektiba historiaren antzekoa da. Biek ere, funtsean, inoiz gertatzen ez diren jazoerak jasotzen dituzte: iraganak jadanik ez da, etorkizuna oraindik ez da; biak existentziaz kanpo daude. Historia bezala, prospektiba giza jazoerekin baka-rik dago lotuta". Metodo prospektiboak historia eta horren arauak (fase diagnostikoan) oroitzen ditu; atzera begirako diagnostikoak diagnostiko prospektiboarekin bat etorri behar du: jazoeren eta eboluzioen atzera itzultzea.

Zenbateraino zehazten du etorkizuna iraganak? Historiari dago-kion galdera hori funtsezkoa da prospektiban. Okerreko irakurketa historikoek ondorio garrantzitsuak izaten dituzte.

Historiaren irakurketa askotarikoa izan daiteke, oraingo beharren arabera. Iraganaren eta etorkizunaren arteko tentsio-puntua da oraina. Oraina eta etorkizuna azaltzen ditu historiak.

Beste definizio batzuk

– Historia, erlazio gisa:

Gizateriaren bi planoren arteko erlazioa da historia, hots, beste garai bateko gizakiek bizitako iraganaren eta iragan hori gizakiaren (eta ondorengo gizakien) probetxurako berreskuratzeko ahalegina garatzen den orainaren artekoa.

– Historia, zientzia gisa:

Nik zientziaren zorrotzasunarekin egindako ikerketa zientifiko baina konplexutzat jotzen dut historia: ez dago historia bakar bat; ez dago historialari-lanbide bakarra, zenbait lanbide eta historia baizik, jakin-minen, ikuspegien eta aukeren batura, gerora beste jakin-min, ikuspegi eta aukera batzuk gehituko zaizkiena (Braudel, 1969, 97. or.).

Aukera

Beste hizkuntzetako baliokideak

Ingelesa: Alternative, option

Frantsesa: Alternative

Alemana: Alternative

Gaztelania: Alternativa

Italiera: Alternative

Definizioa

Hasierako proposamenarekin (joerako proposamenarekin) kontrajarrita dagoen aukera, etorkizun-hipotesi bati edo etorkizun posible baten irudikapenari buruzkoa.

lruzkina

Lurralde-prospektibaren alorrean, aukera bat edo gehiago bilatuz lurralde-eragileei jarduteko ildo berriak, askatasun-eremu berriak ematen zaizkie eskura, jasandako etorkizunaren dikta-dura ekiditeko, askotan nahi denaren kaltetan adierazten baita diktadura hori.

Beste definizio batzuk

Etorkizunean aukera bakarra gauzatuko duen proposamen-sistema.

"Aukera" kontzeptua erabiliz, etorkizun posibleak edo nahigarririk formulatu daitezke era enpirikoan, eta, aldi berean, "agertoki" kontzeptua metodologia sendoagoarekin (azterketa

morfologikoa, etab.) sortutako esplorazio- edo arau-hipotesiara-ko gorde daiteke.

Aurreikuspena

Beste hizkuntzetako baliokideak

Ingelesa: Forecasting

Frantsesa: Prévision

Alemana: Prognose

Gaztelania: Previsión

Italiera: Previsione

Definizioa

Etorkizunari buruzko hipotesia, eskuarki kuantifikatua eta konfiantza-indizeaz lagundua.

Oharra

Aurreikuspena beti dago baldintzatuta; aurretiazko egiturazko egonkortasuna behar du, ondo zehaztutako ingurunean. Hainbat aldagairen balizko eboluzioak, beraz, probabilitate-mailaren kalkularen xede dira.

Aurreikuspenak eta prospektibak oso izaera desberdinak dituzte hurbilketei eta garapenei dagokienez, baina hein handi batean, elkar osa dezakete zenbait proiektu, azterketa edo ariketatan.

Beste definizio batzuk

Etorkizunari buruzko iritzi serio eta aztertuak —ziurtasunez egiaztatu ezin direnak— eratzeaz arduratzen den jardura intelektualak (Bertrand de Jouvenel, 1964).

Aurrerapen-agertokia / Backcasting-a

Beste hizkuntzetako baliokideak

Ingelesa: Backcasting

Frantsesa: Scénario d'anticipation / backcasting

Alemana: Backcasting, Retrospektive

Gaztelania: Escenario de anticipación

Italiera: Scenariio anticipatorio / Backcasting

Definizioa

Etorkizunaren ikuspegi zehatz batetik abiatuta, ikuspegi hori gauzatzera daramaten baldintzak orainera itzuliz etapaka zehaztea ahalbidetzen duen metodoa.

Oharra

Aurrerapen-agertokian, orainetik etorkizunerantz doan agertokiaren alderantzizko bideari jarraitzen zaio pentsamenduaren bidea. Metodo horri esker, posible da helburuak lortu aurretiko baldintza beharrezkoak eta aurrez zehaztutako xedeak eta helburuak esploratzea. Emaizak, maiz, prospektiba baino sortzaile eta berri-zaileagoak izaten dira; izan ere, prospektiba oraingo eboluzio-joeren oinarrian eraikitako analisi eta agertokietan funtsatzen da. Aurrerapen-agertokiaren erreferentzia-puntua, hain zuzen, etorkizuneko askatasun-esparruan kokatzen da, orainean edo iragan-ean baino gehiago. Hain zuzen ere, azken horiek okerreko ziurtasunen esparrua dira.

Atzera begirako esaten dioten antzeko metodoa erabiltzen dute historialariek. Atzera begirakoa iraganeko puntu baten oinarrian egon litezkeen etorkizunak ("beste garai bateko etorkizunak") imajinatzean datza (Bloch, 1949). Teknika horri esker, posible da iraganeko jazoeren kasu-hipotesiak hobeto zehaztea.

Beste definizio batzuk

Jazoera bat etorkizunean gertatu izan balitz bezala hartzen den prospektiba- edo programazio-metodoa. Hala, honako galdera hau sortzen da: Nola gertatu da jazoera hori? (Cornish, 2004, 291. or.).

Aurreratzea

Beste hizkuntzetako baliokideak

Ingelesa: Anticipation

Frantsesa: Anticipation

Alemana: Vorwegnahme (oso gutxitan erabilia), Antizipation, Vorausschau

Gaztelania: Anticipación

Italiera: Anticipazione

Definizioa

Bilakaera bat edo gertakari bat eta bere ondorioak gertatu aurretik antzemateko gaitasuna.

Iruzkina

Prospektiba aurreratze-mota bat da (preaktibitate eta proaktibitate bat), etorkizun posibleak eta etorkizun nahigarriak kontuan hartuta uneko ekintza argitzeko antolatua.

Giza gaitasun hori prospektiba-jarreraren oinarria da; etorkizuna jasatea baino erakitzea du helburu. Aurreraterik gabe, larrialdiak baino ez dira agertzen; horiek, baina, ez dute jokabide-aurkerarik uzten. Gizakiak errealitatea eta bilakaera posibleak ulertzeko duen pertzepzio soila baino haratago joateko aukera ematen duten prospektiba-metodoek indartzen dute gaitasun hori.

Lurralde-prospektibaren ariketa bat eginez, bilakaeran nahasitako eragileei aurreratze-kultura ezagutzeko aukera ematen zaie, lurraldearen etorkizuneko erronka kritikoak antzemanaz eta etorkizun posibleak erakitzen.

Aurreratze-kontzeptua oso zentzu zabalean hartu ohi da; hala, arrazoimena eta intuizioa, kontzientea eta inkontzientea, tresna mentalak, ereduak, sinesmenak, erreflexuak eta abar hartzen ditu barne. (Gabilliet, 1999, 11. or.).

Beste definizio batzuk

Jean Sutterrek (1983) honela definitu zuen aurreratzea: *personak egiten duen mugimendua, oraina gainditzeko eta, inorena baino gehiago, berea den gertuko edo urrutiko etorkizuna antzemateko*.

Azterketa morfologikoa

Beste hizkuntzetako baliokideak

Ingelesa: Morphological analysis

Frantsesa: Analyse morphologique

Alemana: Morphologische Analyse, Morphologischer Kasten

Gaztelania: Análisis morfológico

Italiera: Analisi morfologica


Definizioa

Aztertutako sistema funtsezko dimentsiotan (eremu eta aldagai-tan) zatitzeko eta konbinazio posibleak aztertze metodoa, bilakaera posibleak zein izan daitezkeen atzemateko.

Iruzkina

Azterketa morfologikoa Fritz Zwicky astrofisikari amerikarrak

(1898-1974) sortu zuen, Bigarren Mundu Gerra garaian. Egun, agertokiak erakitzeke erabiltzen da, batik bat. Azterketa morfologikoa bi fasetan banatzen da: eremu morfologikoa erakitzea, eta murriztea.



Bilakaera

Beste hizkuntzetako baliokideak

Ingelesa: Evolution, co-evolution

Frantsesa: Evolution

Alemana: Evolution, Koevolution

Gaztelania: Evolución, co-evolución

Italiera: Evoluzione

Definizioa

Sistema baten zati bati edo sistema osoari dagokion mugimendua.

Iruzkina

Prospektibaren helburuetako bat da bilakaera-joerak identifikatzea, sistema osoari edo sistemaren zati bati —beste zatiak inertziaz geldotzen edo geldiarazten baitituzte— eragiten dioten aldaketak, transformazioak eta mutazioak antzemateko. Biologiaren alorrean, bilakaeran elkarren mende dauden bi espeziaren arteko elkarreaginari koeboluzio esaten zaio. Koeboluzio-sistemako partaide bakoitzak era selektiboan eragiten dio besteari, eta, horren ondorioz, bestearen eta bere bilakaera indartzen ditu. Erich Jantsch-en iritziz, kosmosaren bilakaera koeboluzio-printzipioan oinarrituta dago (*The self-organizing universe*). Astronomiako teoria berri baten arabera, galaxien eta zulo beltzen artean koeboluzioa dago. Bestalde, osagarritasun-dimentsioa duen bilakaera- eta hazkunde-prozesu batean elkar estimulatu duten printzipio edo sistema sozial eta ekonomikoak batera existitzen dutelako printzipioari ere lotzen zaio koeboluzioa. Gero eta gehiago, natura imitatzen duten garapen iraunkorreko sistemak aipatzeko erabiltzen da koeboluzioa; izan ere, batentzat hondakina dena bestearentzat lehengai izan daiteke, etab. Bilakaera guztiak ziklikoak dira, dena transformatzen da. Hala, mundu urbano eta ekonomikoan ere, koeboluzio-sistemak daude; esaterako, moneta-sistemak eta truke-sistemak.

Beste definizio batzuk

Bilakaera: *“denboraren poderioz gertatzen diren aldaketa gradualak edo aldaketa-segidak, normalean nahiko geldoak”*. Definizio horrek azter daitezkeen fenomeno-mota guztiak barne har ditzake;

Halere, praktikan, gehienetan, formak (morfologia) beha daitezkeen sistema bizidun edo animatuei dagokie. Fenomenoen denbora-ezaugarriei dagokien esaera hori asko erabili izan da espazioko mugimenduetan ere (soldaduen mugimenduak edo hegazkin baten zeruko mugimendua “bilakaera”-tzat jotzen da). *“Bilakaera” hitzak bi denbora-transformazio hartzen ditu barne: bilakaera etenak —esaterako, mutazioak edo fase-aldaketak— errazago aurreikus daitezke ondorioei dagokienez, bilakaera “jarraituak” baino —esaterako, garapenena edo zahartzea—. “Adarkatzeen teoria”-ren bidez (horren arabera, “ageriko jarraitutasuna” balizko “eten ikusezina” da, eta, beraz, ondorioa*

gutxitan aurreikus daiteke), bi ideia horiek lot daitezke, behar bada (MCX-APC konplexutasunaren lexikoa).



Delphi metodoa

Beste hizkuntzetako baliokideak

Ingelesa: Delphi process

Frantsesa: Delphi

Alemana: Delphi-Methode

Gaztelania: Delphi

Italiera: Delphi, Metodo Delphi

Definizioa

Aditu-talde baten intuiziozko iritzia era sistematikoan erabiltzean datzan metodoa. Alderdi sistematikoa honela gauzatzen da: hainbat aditu behin baino gehiagotan galdekatzen dira, bat-etortzeak azaleratzeko; gehienetan, desadostasun-ikuspegiak baztertu egiten dira.

Iruzkina

Adituengana jotzeko metodoak berez garatu dira, iritzizko bat-etortzeak azaleratzeko eta kontsentsua prestatzeko. Erabakizko Delphi metodoa eta aurreikuspeneko Delphi metodoa ezberdindu daitezke. Erabakizkoa asko erabiltzen da erabakiak hartzen hasteko eta jabetzea indartzeko. Aurreikuspeneko – *Zer gertatuko da etorkizun jakin batean?* edo *Noiz gerta daiteke haustura jakin hau?*– askoz eztabaidagarriagoa da. Izan ere, hainbat galdeketa eginez, iritzi nagusiak indartzera darama, eta gutxiengoarenak baztertzera. Delphi metodoaren kritika horien ondorioz, eragile batzuek eragin gurutzatuko metodoak sortu dituzte, egindako galderen arteko dependentsia hobeto kontuan hartzeko. Metodo horiek erakutsi dute iritzizko bat-etortzeak egon daitezkeela nekez sinesteko bilakaera edo gertakarietan.

80ko hamarkadan, praktikante batzuek (Gerpak, esaterako) kritika horietako batzuk baztertu zituzten, eta Delphi/Régnierren abakoa metodoa sortu zuten. Metodo horrek abakoaren kolorezko botoak eta boto elektronikoen metodoak erabiltzen ditu aldi berean ikuspegi aniztasunari buruzko debateak antolatzeko, galdekatutako eragileen aniztasunaren arabera. Hala, galdeketa batetik bestera, galderak birformulatu egiten dira. Theodore J. Gordonek bultzatuta, Millennium Project taldeak denbora errealeko Delphi metodoa sortu du, Interneten erabilerari esker (*Real Time Delphi*).

Beste definizio batzuk

Ahalmen sortzailerako metodo ugarien artean, *brainstorming*-a da ezagunena (ideia-jasa). Baina beste metodo eta teknika ugari erabil daitezke, kasuen arabera. *Brainstorming*-a ideala da lehen ariketa baterako, gako-hitzen bidez soilik, sakondu gabe, ideia asko sortu nahi direnerako. Baina ideiak azaleratzeko gehiago hausnartu behar denean, *brainwriting*-erako metodoak (idatzizko ideia-jasa) komeni dira. Gehienetan, metodo horiek denbora gehiago eskaintzen diote hausnarketari: hitz egin gabe lan egin daiteke, bakoitzak bere ideiak idatzita eta taldeko beste kideei pasarazita (Von Reibnitz, 2007).

Brainstorming eta *brainwriting* metodoek ideia sendorik eragiten ez badute, beste hainbat metodo erabil daitezke, hala nola alde-erata, eztabaida, bat-etortzea eta desadostasuna. Metodo horiek taldea arazotik urruntzen dute, eta, aldi berean, ahalmen sortzailerako osagai berriak barneratzen dituzte.

Denborazkotasuna

Beste hizkuntzetako baliokideak

Ingelesa: Temporality

Frantsesa: Temporalité

Alemana: Zeitbezug

Gaztelania: Temporalidad

Italiera: Temporalità

Definizioa

Orainak iraganera eta etorkizunera begira ezartzen duen erlazio konplexua.

Oharra

Historikotasunaz (prozesu historikoa eta, hortaz, oraina iraganarekin lotzen duten erlazioak ezagutzeko tresna gisa hartzea) haratago, denborazkotasunaren barruan geratzen da prospektiba. Denboraren geziaren bakartasun lineala salbu, prospektibagileak beharrezko joan-etorriak egiten ditu iraganen, orainaren eta etorkizunaren artean, determinismotik ihes eginez, baina ibilbide eta esperientzia historikoak kontuan hartuz, izan litezkeen etorkizunak esploratzeko eta etorkizun desiragarrien egokitasuna eta koherentzia neurtzeko.

Diziplina-zeharkakotasuna

Beste hizkuntzetako baliokideak

Ingelesa: Multi-disciplinary, pluri-disciplinary

Frantsesa: Transdisciplinarité

Alemana: Transdisziplinarität, Multidisziplinarität

Gaztelania: Transdisciplinar

Italiera: Transdisciplinarieta

Definizioa

Diziplina zientifikoen artean, haiez haratago eta haietan zehar lan egiten duen ikertzaile baten jarrera intelektuala.

Oharra

Diziplina-zeharkakotasunaren kontzeptua 1970ean asmatu zuen Jean Piagetek (1896-1980), ELGak unibertsitateetako irakaskuntza eta ikerketari buruz Nizan antolatu zuen mahai-inguruan. Psikologo eta epistemologo suitzar hark diziplinartekotasuna gauditu nahi zuen: *"Azken batez, diziplinarteko erlazioen etapan, pentsa dezakegu "diziplina-zeharkakoa" izango den etapa gailenagoa etorriko dela"*. Eta etapa horretan ez dira soilik ikerketa espezializatuen arteko interakzioak eta elkarrekikotasunak lortuko; hain zuzen, lotura horiek diziplinen artean muga egonkorrik ez dagoen sistema osoaren baitan kokatuko dira. Hala, diziplina-zeharkakotasunaren manifestuan (Edition du Rochers, 1996), Basarab Nicolescuk bereizi egiten ditu diziplina-zeharkakotasuna, diziplina-aniztasuna (zenbait diziplinar diziplina bakarra aztertzea aldi berean) eta diziplinartekotasuna (diziplina bateko metodoak transferitzea, xedea diziplina-ikerketaren baitan geratzen denean) (Gonod, 2006, 14. or.).

Diziplina-zeharkakotasunak, mundua ulertzeko saiakera izaki, prospektibarako esparru kontzeptual egokiena ematen du. Pros-

pektiba-ariketak gauzatzean ere diziplina-zeharkakotasuna eta dimentsio anitzeko diskurtsoa gertatzen dira, partaideen hizkuntza komuna eta aurrerapenari buruzko hausnarketaren oinarri izango den erreferentzia-eredu komunaren baldintzak askatzea xedea duen sistemaren ondoz ondoko irudikapenen bidez.

Beste definizio batzuk

Diziplina-zeharkakotasuna diziplinen *artean*, diziplinetan *zehar* eta diziplinez *haratago* agertzen da. Diziplina-zeharkakotasunaren xedea *uneko mundua ulertzea* da, non bete beharreko baldintzetako bat ezagutzak elkartzea baita.

La transdisciplinarité, Manifeste, Editions du Rocher, 1996 (Serge Diebold-ek aipatua, 2007).



Ebaluazioa

Beste hizkuntzetako baliokideak

Ingelesa: Evaluation, assessment

Frantsesa: Évaluation

Alemana: Evaluierung, Bewertung

Gaztelania: Evaluación

Italiera: Valutazione

Definizioa

Ebaluazioa egitea da politikak, programak, proiektuak eta funtzioak aztertzea —egokitasunari, eraginkortasunari, efizientziari, koherentziari, iraunkortasunari eta bideragarritasunari dagokienez—. Erabakien kalitatea hobetzeko, baliabideak hobeto erabiltzeko eta parte-hartzaileei berri emateko egiten da ebaluazioa.

Iruzkina

Ebaluazio guztietan, parte-hartzaile nagusien lankidetzeta eta el-karrizketa behar dira; hau da, agintariena; ebaluatzaileena; politika, programa, proiektu edo funtzioen hartzaileena; eta parte-hartzaile guztiena, alegia, ebaluatutako programan eta ebaluazioaren emaitzetan interesa duten norbanako edo erakundeena. Hala, eragileek ebaluatutako gaiaren emaitzei eta praktikei buruzko hausnarketaz jabetzeko planteamendua baino ezin daiteke izan ebaluazioa. Adierazleak, azterketak bezalaxe, etapa bakoitzean ebaluatu behar dira.

Prospektiba-planteamenduaren alorrean, ebaluazioa lan korapilatsua da. Ebaluazioaren bidez, ariketaren fase bakoitzean, helburuak bete diren jakin daiteke, planteamendua eramateko moduari buruzko ikaspenak lor daitezke, ekintza osagarriak zehaztu daitezke eta segimendu- edo erremediazio-jarduerak planteatu daitezke. Ebaluazioek aukera paregabea ematen diete parte-hartzaileei gutun komunaren arabera ondo dabilenari buruz eta antzemandako arazoei buruz duten ikuspegia adierazteko.

Bestalde, ebaluazioei esker hainbat arlo baieztatu daitezke, besteak beste honako hauek: ariketaren hasieran ezarritako helburuak, ariketaren bilakaera eta lortutako emaitzak bat datozela; ariketaren kudeaketa metodologikoaren kalitatea egokia dela —batik bat gobernantzararen etikari eta gardentasunari dagokienez—; ekintza estrategikoen eraginkortasuna; sintesien argitasun eta kalitate pedagogikoa; eta prospektiba-prozesua-

ren eta lurraldearen arteko elkarrekintzen egokitasuna.

Ebaluazioa hiru erara egin daiteke: *ex-ante*, aurrera doan heinean (*in itinere*) eta *ex-post*. Ariketaren emaitzetatik eta planteamendutik esperientziak ateratzeko, era horiek guztiak batu behar ditu ebaluazioak.

Halere, esan beharra dago zaila dela prospektiba-planteamenduen eragin erreala neurtzea; izan ere, ebaluaziorako tresnekin ezin da benetan neurtu prospektiba-ariketa egin ez balitz zer gertatuko litzatekeen.

Beste definizio batzuk

Jarduera batek hasieran ezarritako helburuak zenbateraino bete dituen antzemateko prozesua da ebaluazioa. Bestalde, ebaluazioak azaleratu behar du ea ustekabeko gastuak edo onurak gehiago sortu diren, eta ea jardueratik beretik eta jarduera egin den modutik ikaspenik atera daitezkeen (Europako Batzordea, 2002).

Egitura-azterketa

Beste hizkuntzetako baliokideak

Ingelesa: Structural analysis

Frantsesa: Analyse structurelle

Alemana: Schlüsselfaktorenanalyse, Strukturanalyse

Gaztelania: Análisis estructural

Italiera: Analisi strutturale

Definizioa

Sistema bateko gako-aldagaiak eta, batez ere, bilakaeraren erroka-eramaile diren aldagaiak identifikatzeko metodoa.

Iruzkina

Egitura-azterketaren bidez, sistema bat deskriba daiteke sistema hori osatzen duten osagai guztiak harremanetan jartzen dituen matrize baten bitartez.

Azalpen horretatik abiatuta, eragina duten aldagai nagusiak eta aldagai dependente garrantzitsuenak azaleratzen ditu metodo horrek, bai eta, hortaz, aztertutako sistemaren bilakaerarako funtsezkoak diren aldagaiak ere.

Eragilea

Beste hizkuntzetako baliokideak

Ingelesa: Actor, stakeholder, agent

Frantsesa: Acteur

Alemana: Akteur, Gestalter

Gaztelania: Actor

Italiera: Attore, attore locale

Definizioa

Prozesu edo sistema batean estrategia inplizitu edo esplizitu bati erantzuten dion helburua betetzeko asmoz, era birtualean edo errealean elkarrengaitan duen pertsona edo erakundea.

Iruzkina

Askatasuna eta zilegitasuna dira eragilearen bi ezaugarri nagusiak. Askatasunari dagokionez, Michel Crozier eta Erhard Friedberg-en iritziz (1977, 45-46. or.), *argi eta garbi esan [behar da] giza jokabidea ezin dela inolara ere obeditzearen edo egitura-datuaren presioaren emaitza mekanikotzat jo. Hala, askatasun baten adierazpena da beti, askatasun txikiena izanda ere, eta askatasun hori gauzatzeak estrategia azaleratua edo formalizatua, inplizitua edo esplizitua sor dezake. Askatasun hori honela gauzatzen da: eragileak aurrean dauzkana aukerak bere egiten ditu eta, bete behar dituen baldintzak kontuan hartuta, erabakia hartzen du. Ezin da, beraz, erabat aurrekusi; izan ere, jokabidea ez da zehaz-*

tua, baina bai gertagarria. Eragilearen zilegitasunaren nozioari dagokionez, aztertutako sistemaren partaidera garamatza; hau da, anglosaxoiek dioten bezala, eragilea beretzat edo sistema-rentzat "erronka-eramaila" (*stakeholder*) den galdetzen du. Lurralde-prospektibaren bilakaeraren esparruan, eragileak partaide diren sistemako aldagaietan oinarrituta identifikatzen dira; ondoren, haien jokabideak, proiektuak eta elkarren arteko indar-erlazioak —eragileen jokoak— aztertzen dira, lurraldeko erronken azterketa aberaste aldera. Zailtasunetako bat da joko nahiko homogeneous daukaten eragileak identifikatzea; hala, Estatua ezin daiteke gehienetan eragile osotzat jo, erakunde askoz osatuta baitago, eta erakunde bakoitzak estrategia propioa erabil baitezake, baita "talde" bereko erakundeen kontra-koa ere.

Eragile-jokoen azterketan, Pierre Gonod-ek hauek bereizten ditu: sistematan duten eragin-maila; eragin-, ezarpen- eta hertsapen-ekintzak; eta menpekotasun-ekintzak. Lehenek jokabideak aldatzeko helburua dute; bigarrenak, berriz, indarrak eta bortizkeriak erabili gabe edo bataren eta bestearen mehatxua eginez, ekitera edo ez ekitera behartzeko xedea dute. Hirugarrenek hertsapen-ekintzaren iraupena edo ekintza horren ahaizkotasuna daramate; egitura-eraginaren eremua da. (Gonod 2006, 2 or.).

Beste definizio batzuk

Philippe Bernoux-ek (1990, 166. or.) "eragile" deitzen dio *ekintzan parte hartzen duen eta ekintza horretarako interes komunak dituen* pertsona edo taldeari. *Ezinezkoa da, beraz, aurretik lan [edo lurralde] bateko eragileen zerrenda ematea. Planteatutako ekintzan oinarrituta zerrendatu behar dira. Talde bera eragile bakarra izan daiteke kanpoari begira bloke gisa jarduten badu; baina eragile bat baino gehiago ere bil ditzake. Pertsona bat, hierarkian oso gora egonda ere, ez da ezinbestean eragilea.*

Eragin gurutzatuen azterketa

Beste hizkuntzetako baliokideak

Ingelesa: Cross impact analysis

Frantsesa: Analyse d'impacts croisés

Alemana: Wechselwirkungsanalyse, Cross-Impact-Analyse

Gaztelania: Análisis de impactos cruzados

Italiera: Analisi di impatto incrociato

Definizioa

Aldagaiak, gertakariak, joerak, probabilitateak eta abar gurutzatzeko, matrize-moduan erlazionatzeko, teknikei esaten zaie.

Iruzkina

Egituren eta eragin gurutzatuen azterketarako metodoak Delphi metodoaren sortzaile Olaf Helmer-en ekimenetatik abiatuta garatu dira batez ere, agertzen diren gaien arteko elkarrekintzak kontuan hartuz Delphi metodoa hobetzeko.

70eko hamarkadan, metodo horiei buruzko ikerketak asko garatu ziren, Theodore J. Gordon, Olaf Helmer, Emilio Fontela, Michel Godet eta abarren lanen bitartez.

Erreaktibitatea

Beste hizkuntzetako baliokideak

Ingelesa: ez dago baliokiderik

Frantsesa: Réactivité

Alemana: Reaktives Verhalten

Gaztelania: Reactividad

Italiera: Reattività, essere reattivi

Definizioa

Kanpoko eskarien aurrean erreazionatzea eta egoera berriak aurkezten direnean moldatzea oinarri duen jarrera.

Oharra

Etorkizunera begira har daitezkeen jarretako bat da erreaktibitatea: pasibotasuna, erreaktibitatea, preaktibitatea eta proaktibitatea. Jarrera erreaktiboa beharrezkoa da eragilearentzat eta arduradunarentzat. Hala, zaintzako eta lurralde-adimeneko sistema bat abiarazteak ahalbidetu egiten du proaktibitatea eta preaktibitatea areagotzea ez ezik arduradunaren erreaktibitate-gaitasuna ere areagotzea etorkizun posibleen, joera-bizkortzearen edo hausturak sortzearen aurrean.

Erronka

Beste hizkuntzetako baliokideak

Ingelesa: Issue, key issue, in play, stake

Frantsesa: Enjeu

Alemana: (baliokide zuzenik ez, oso gertuko hitza) Herausforderung, Einsatz

Gaztelania: Reto

Italiera: Questione, tema

Definizioa

Aldaketa positiboak (aukerak) edo negatiboak (mehatxuak) eragiteko gaitasuna duen problematika identifikatua, eta prospektiba erakitzeako eta estrategia zehazteko kontuan hartu behar dena.

Iruzkina

Borroka-eremuan, galdu edo irabaz daitezkeen hori da erronka. Etorkizuneko erronkak, pentsa daitezkeen errokak eta, batez ere, epe luze-rakoak antzematea da prospektibaren eginkizunetako bat.

Esan daiteke identifikatutako arrisku baten edo baliatu beharreko aukera baten aurrean ekiteko beharra dagoenean (edo ekiteko borondatea adierazteko beharra dagoenean) dagoela erronka. Hala planteatutako edo egindako ekintza erabakigarria izango da; izan ere, erronkaren oinarrian zegoen egoera aldatuko baitu.

Beste definizio batzuk

Egoera jakin batek eragile baten posizio estrategikoan duen eraginaren neurketa.

Eskala

Beste hizkuntzetako baliokideak

Ingelesa: Scale, metrics

Frantsesa: Échelle

Alemana: Maßstab, Rahmen, Skala, Dimension, Ebene

Gaztelania: Escala

Italiera: Scala

Definizioa

Handitasun-, neurri- edo garrantzi-maila.

Iruzkina

Lurralde-prospektibaren alorrean, eskalaren kontzeptua bi errealtaterentzat erabiltzen da, eta bietako bakoitzak zailtasun bereziak dauzka.

Lehena lurraldeari dagokio. Alor horretan, eskala prospektiba-ari-keta egiten den lurralde-perimetroari dagokio. Bi zailtasun sor daitezke: batetik, proiektuko lurraldearen (proiektua erakitzeako prospektiba-planteamenduari dagokion lurraldearen) eta dago-

kion bizi-lurraldearen arteko moldakaiztasuna egon daiteke (esaterako, herri-elkargo baten eta hiri-eremu baten artekoa); eta, bestetik, aldagaien bilakaera-hipotesiak elikatzeko atzera begirako edo/eta adierazleei buruzko datuak aurkitzeko erraztasunari dagokion zailtasuna ere egon daiteke.

Bigarrena denbora-panoramari buruzkoa da. Alor horretan, lurralde-sistema osatzen duten aldagaien bilakaera-hipotesiak eratzeko lanak izaten duen zailtasuna da jorratutako gaien arabera denbora-eskalak ezberdinak izaten direla. Hala, hamar urterako prospektiba-ariketan, alferrik da, demografiari dagokionez, joerarekin haustura handiegia egiten duten hipotesiak zehazten saiatzea, demografiaren aldagaia eskala horretan oso geldoa baita (Jouvenel, 2004). Era berean, agertoki partzialak eraikitzean, denbora-eskala ezberdinen arabera hipotesiak elkarrekin lotzea (garraio-azpiegiturak batetik, eta telekomunikazio-sareak bestetik, esaterako) zaila izan daiteke. Fenomenoen dinamikari, espazioari eta denborari dagozkien eskalak kontuan hartu behar dira. Prospektiban, eskala horiek konbinatzeko ahalegina egiten da.

Estrapolazioa

Beste hizkuntzetako baliokideak

Ingelesa: Extrapolation, projection

Frantsesa: Extrapolation

Alemana: Extrapolation, Trendfortschreibung

Gaztelania: Extrapolación

Italiera: Estrapolazione

Definizioa

Behatutako joerak era inplizituan edo esplizituan epe luzera eramateko aurreikuspen-prozesua.

Iruzkina

Bertrand de Jouvenel-ek dioen bezala (Hetman, 1969), estropolazio-prozesua metodo errazegitatzat jo ohi da. Izan ere, iraganeko joerak estropolatuz aurreikusitako etorkizun bat planteatzea baino, prospektibak nahiago du etorkizun posible batzuk aurrez aurre jartzea, eta, gero, horiek kontuan hartuko dituen estrategia boluntarista bat era askean sortzea. Mugimendu batek joera berari eta modu berei jarraituz aurrera egingo duela aurreikustearen oinarrian, inertzia-printzipioa edo "arrazoi eskasiaren printzipioa" daude. Lehentasunez aztertzen ditugun faktoreak —esaterako, nazio-produktu gordina, lan-ordukako ekoizpena— kausa ugari aldarazten dituzte. Ez da absurdua pentsatzea, hasiera batean eta arrazoi-eskasiagatik, mugimendu jakin batek jarraitu egingo duela; baina, ondoren, aldaketaren arrazoiak bilatu behar dira. Lurralde-prospektibari dagokionez, "joera sendoak estropolatuz soilik hartutako erabaki baten ondoriozko prospektibaren garaia amaitu da; egungo planteamenduak gai izan behar du gaiak eztabaidatzeko erabiltzen diren terminoak berak aldatzeko, seinale ahulak antzemateko, etorkizun nahigarriak sortzeko eta, tokiko eragileek ahalik eta gehien eraginik, aldaketa-prozesuak animatzeko." (Durance, Godet, Mirowsicz, Pacini, 2007).

Beste definizio batzuk

Harremana ezartzeko definitu den tartearen kanpotik hartu den aldagai baten balioa erabiltzea funtzioaren balioa zenbates-teko..

Estrategia eta taktika

Beste hizkuntzetako baliokideak

Ingelesa: Strategy and tactics

Frantsesa: Stratégie & Tactique

Alemana: Strategie und Taktik

Gaztelania: Estrategia y táctica

Italiera: Strategia e Tattica

Definizioa

Erakunde edo lurralde baten xedeak betetzeko asmoa duten helburu operazionalen, bideratzeen eta ekintza eta bide egokien multzoaren definizioa, koordinazioa abiaraztea eta doikuntza.

Oharra

Prospektiba-ariketa guztiek bi fase dituzte: fase prospektiboa (esploraziozkoa eta arauzkoa) eta fase estrategikoa, ikuspegia bateratzea eta jokoan diren gaiei erantzutea ahalbidetzen duena.

Estrategia ez da taktikarekin nahastu behar. Honela definitzen da taktika: "Errendimendu onena lortzeko tresnak erabiltzeko artea" (Beaufre jenerala).

Kudeaketa estrategikoa antolaketa strategiaren zerbitzura jartzean datza (Boyer eta Equibey, 1990). Egitura eta antolaketeki beren ingurunera moldatzea ahalbidetzen dieten baldintzetan oinarritzen da (Ansoff, 1989). Antolaketa batek egindako analisiak eta hartutako erabaki eta ekintzak berreskuratzen ditu, abantaila lehiakorra sortzeko eta mantentzeko moduan.

Beste definizio batzuk

Estrategia eragile bati bere helburuak eta proiektua lortzea ahalbidetzen dioten jokabide-arauen multzoa da (Godet, 2007).

Antolaketa simple edo konplexu baten banako norabidearen edo norabide kolektiboaren aldeko beharrezko baliabideak, egiazki edo birtualki, prestatzeko eta abiarazteko artea da estrategia, orotariko izaerako oztopoak gainditze edo murrizte aldera (fisikoak, lor daitezkeen helburu bat aurkatzen duten borondatezko talkak). Hori egitean, behar bezala aurreratu behar da denboran, etengabeko doikuntzaren prozesuarekin bat, jokoan dauden indar fisiko eta moralen arteko erlazioaren eboluzioa.

Sistema bateko elementuak estrategia baten esparruan ekintza-lehentasunak ezarri ordenatzen irakasten duen artea da taktika. Hizkuntza militarrean, "taktika" hitza adiera zorrotzarekin erabiltzen da, etsai bat dagoenean jokatze moduari buruzko arauak ezartzea izendatzeko. Ingurune horretan, lurraren konfigurazio eta eboluzioarekin lotura estua du; halaber, banako unitateen arauak (adibidez, errejimentu batek jarraitu beharreko taktika) edo armadako taldeen mugimenduen multzo konplexuan aplikatu daitezkeen arauak (gerrarako taktika) ezartzen ditu. Prospektibaren hizkuntzan, eragileen jokabideen simulazioetan erabiltzen da taktika agertokien sorkuntzan; agertokien dinamika aurkatzen duten eragileen strategiaren garapen naturala da.

Eredu kuantitatiboaren metodoak erabiltzen dituen prospektiban, eragileen zenbakizko jokabide-arauetan barne hartzen da taktika. Hartara, adibidez, petrolio-merkatuaren simulazio-eredu batean erabiliko den taktika izan daiteke prezioek libreki fluktua dezaten uztea, instalatutako gaitasunaren erabilera-tasak maila jakin bat gainditzen duenean.

Etenaldia

Beste hizkuntzetako baliokideak

Ingelesa: Discontinuity, lack of continuity

Frantsesa: Discontinuité

Alemana: Diskontinuität, Wechsel, Unstetigkeit (matematikan)

Gaztelania: Discontinuidad

Italiera: Discontinuità, Momento di rottura

Definizioa

Gertakari-segida batean, bilakaera batean edo haren irudikapenean gertatzen den etena, aldaketa edo haustura, batez ere azterketaren ondoriozkoa.

Iruzkina

Michel Foucaultek (1926-1984) etenaldiaren paradoxa-dimentsioa azalerratu zuen, aldi berean ikerketaren tresna eta xede den horren dimentsioa: izan ere, eremuak bakantzea ahalbidetzen du etenaldiak, baina eremu horiek alderatuz soilik gauzatu daitezke. Etenaldia eskakizun metodologiko bihurtuz eta historiaren kontinuitate tradizionala zalantzan jarriz, Michel Foucaultek kontzeptu hori azterketa historikoaren funtsezko osagai bihurtu zuen, prospektibagilearen arreta osoa erakartzen baitu gai horrek. Foucaulten iritiz, *deskubritu behar denak hauek dira: prozesuen mugak, kurben inflexio-puntuak, mugimendu erregulatuak alderantzizkoak, oszilazioen mugak, funtzio-namenduen atariak, kausalitate zirkularren desdoikuntza-unea, [...] atari epistemologikoa, populazio-kurben aldaketa, teknika batek beste bat ordezkatzeko* (Foucault, 1969, 16-17).

Etenaldien identifikazioa ariketa zaila izaten da askotan. Denbora-eskalaren nozioa, esaterako, oso garrantzitsua da etenaldiak neurtzeko. Etenaldi horiek, ordea, etorkizun posibleak aztertzeko eta politika proaktiboa eratzeko ezinbestekoak dira. Joera jakin bat hartuta, funtsezkoa da hausturazko bilakaerak planteatzea. Lurralde-prospektiban jarduten duten eragileei zaila egiten zaie askotan, bilakaera horiek planteatzea (biztanle gehienak kontratatzen dituen lantegia ixtea, osasun-ezbehar handia, etab.).

Beste definizio batzuk

Aldaketa-mota bat [...] dago, egoera jakin batetik beste egoera erabat ezberdinerara berehala pasatzean. Orduan, etenaldia, kalitate-jauzia edo mutazioa aipatzen dira –hiru termino horiek gutxi gorabehera baliokideak dira. Kurbaren bilakaera erregularra eten egiten da bat-batean; joera berri bat hasten da... hurrengo hausturara arte. Kasu horretan, uneko joera estrapolatuz, etorkizunaren ikuspegi okerrera helduko ginateke. (Cazes, 2007)

Etorkizun desiragarriak

Beste hizkuntzetako baliokideak

Ingelese: Desirable futures, preferable futures

Frantsesa: Futurs souhaitables

Alemanez: Gewünschte Zukünfte

Gaztelania: Futuros deseables

Italieraz: Futuri desiderabili ; Desiderata

Definizioa

Etorkizun desiratuari buruz asmatutako kontakizunak, egoera erreala baten aurrean ezarritako erroka jakin batzuei buruzkoak.

Iruzkina

Etorkizun desiragarria zehaztea prospektiba-planteamenduaren arauzko fasea da.

Lurralde-prospektibak zentzua hartzen du ekintza prestatzean eta, beraz, zehazki gauzatzeko lurralde-proiektua eta estrategia eraikitzean. Identifikatutako etorkizun posibleen ingurune ba-

tean, ikuspegia osatuko duten eta lotutako xedeak eta helburuak zehazteko aukera emango duten etorkizun desiragarriak aukeratu behar dira, ez badute, desiragarritzat jotzen dutena bat-batean jakinaraziz, prospektiba-ariketan parte hartzen dutenek etorkizun horiek egingarri nola bihurtu ikertzen, eta etorkizun desiragarri horiek lagundu, geldiarazi edo eragotz dezaketen etorkizun posible batzuk aurreratzen.

Etorkizun posibleak

Beste hizkuntzetako baliokideak

Ingelese: Futurable, possible future, alternative future

Frantsesa: Futurs possibles

Alemanez: Mögliche Zukünfte

Gaztelania: Futuros posibles (futuribles)

Italieraz: Futuri possibili

Definizioa

Etorkizun potentzialen kontakizuna, uneko egoeraren bilakaera posibleetan oinarritua eta orainaldiko joera sendoetan gutxi-asko errota.

Iruzkina

Betetako egintzen domeinua da iragana (*facta*), eta ezin dugu ezer aldatu (baina interpretazio asko egin ditzakegu); geroa, berri, ez dago egina, ezta aurrez zehaztua ere. Horrenbestez, etorkizun posible asko egon daitezke.

Uneko egoeraren ondorengo posibleak dira etorkizun posible horiek. Genealogia bat dute. Halaber, nabarmendu behar da ez direla gure imajinarioaren emaitza, oraingo egoeratik erator daitezkeen etorkizunen analisi baten emaitza baizik. Beraz, posibleak eta onargarriak dira aldi berean (Jouvenel, 1964). Iragana eta oraina ezagutzen imajina ditzakegunak dira etorkizun posibleak. "Ondorengo" terminoak nolabaiteko determinismoa du. Etorkizun posibleak imajinagarriak bihurtzen dira, analisiaren ondorio direlako. Zenbait etorkizun imajinaezinak dira, gerta daitezkeen arazoak direla medio (eskema mentalak inposatzeagatik eta abarregatik). Prospektiba-metodoen xedeetako bat da imajinagarriak ez diren etorkizunak imajinagarri bihurtzea. Nabarmendu behar da etorkizun posibleek prospektiba-planteamendu esploratzailea bakarrik dakartela.

Etorkizun posibleen eremua zehaztugabea da. Etorkizuneko zenbait egoeraren analisiak eta deskribapenak metodo zorrotzak eskatzen dituzte (logika deduktiboa, adituen adostasuna, matematika-modelizazioa). Etorkizun posibleak aztertzeko eta deskribatzeko modu sintetikoa da agertokia.

Etorkizuna

Beste hizkuntzetako baliokideak

Ingelese: Future

Frantsesa: Futur

Alemanez: Zukunft

Españolez: Futuro

Italieraz: Futuro

Definizioa

Gerta daitekeenaren irudikapena (geroa) eta gertatzea nahi dugunarena batera jartzen ditugun denbora-tartea.

Iruzkina

Prospektibaren analisiaren xedea da etorkizuna. Erlazio-sistema batean, faktore-multzo batek definitutako sistema batean, gertatzen diren egoera eta jokabideei buruzko hipotesien ondorioz

sortzen den dedukziozko proposamena da. Prospektibari esker, etorkizuna *indar ikusgaia* da (Massé, 1973). Etorkizuna proiektuaren aldia da. Etorkizunaren azterketaren nondik-norakoa esploraziozkoa edo arauzkoa izan daiteke. Lurralde-prospektiba egitean, hiru etorkizun-mota identifika daitezke: egiantzekoa, gertagarria eta desiragarria. Egiantzeko etorkizunak analisia du oinarri. Egiantzeko etorkizunak lotura estua du esplorazio-plan-teamenduekin, eta dagoeneko bitzako egoera eta jokabideek deskribatutako etorkizun bati egiten dio erreferentzia. Etorkizun gertagarria, bestalde, adituen iritziak oinarri dituen eta metodo zehatzak (Delphi, etab.) erabiltzen dituen ebaluazioei dagokie. Etorkizun desiragarriak, berriz, aukera bat irudikatzen du: Aztertutako etorkizunaren interesa ebazteko, balio-eskala bat ematen du, eta, beraz, lotura hertsia du arauzko planteamenduekin. Etorkizuna ez da aurreikusten; imajinatu egiten da, bermerik gabe esploratzen da. Hainbat kulturari dagokien eraikitze kulturalaren ondoriozko denbora-kategoriak dira iragana, oraina eta etorkizuna. Etorkizuna denbora-kategoria gisa existitzen da, baina haren irudikapenak zalantza-koak dira. Halaber, etorkizun ezinezkoak, imajinaezinak, ere badaude. Itsutasuna (paradigmatikoa, nagusiki) arazo handia da, eta tresnak izan behar ditu irtenbidea topatzeko eta etorkizunak imajinatzeko gai izateko. Geroaren adierazpenak duen muga nagusia da. Etorkizuneko hainbat "denbora" aipa daitezke: batzuk hurbil daude, eta beste batzuk urrun; beraz, imajinatzeko errazagoak dira batzuk, eta beste batzuk zailagoak. Edonola ere, prospektibagileentzat etorkizuna pluralean erabiltzen da: etorkizunak.

Etorkizuna dakarren gertakaria

Beste hizkuntzetako baliokideak

Ingelesa: Germ, weak signal, shaping factor

Frantsesa: Fait porteur d'avenir

Alemana: (baliokide zuzenik ez), Zukunftskeim (oso gutxi erabilia), Zukunftssignal / Zukunftsindiz, Zukunftsträchtigt Faktor

Gaztelania: Hecho portador de futuro

Italiera: Germe del cambiamento

Definizioa

Etorkizuneko bilakaeraren zeinua edo seinalea, uneko egoeran oso txikia dirudiena, baina etorkizunean ondorio adierazgarriak izan ditzakeena.

Iruzkina

Kontzeptua Pierre Massék sortu zuen (1898-1987). Etorkizuna dakarten gertakariak aldaketa-faktore gehienek osatzen dute — politiko, ekonomiko, teknologiko edo kulturalak—. Azterketaren uean ia antzemanezinak dira, baina gerora joera sendoak sor ditzakete (Massé, 1965). Nozio horrek, beraz, *seinale ahul* eta *joera sendo* kontzeptuak biltzen ditu: etorkizuna dakarren gertakaria, adibidez, joera sendo bihurtuko dela uste den seinale ahul bat da. Egoerazkoa edo egiturazkoa izan daitekeen gertakari baten seinalea da. Askotan, etorkizuna dakarten gertakariak eztabaida intelektualak eragiten dituzte; beraz, ezinbestekoa da seinale-multzoa edukitzea. Joera sendoei edo etorkizuna dakarten gertakariak data jarri behar zaie.

Beste definizio batzuk

Giza jarduera jakin batek duen balizko bilakaeraren joera sendoa izateko itxura gutzia duten behaketa egiaztagarrien multzoa. Etorkizuna daraman gertakaria, beraz, lehen begiratuan, joera sendo baten oinarritzko partikula da. Halere, bestela ere

har daiteke; *a priori* ezaguntzat jotako bilakaera-prozesuetan gertatzen den etenaldi eta hausturen seinaleetat jo daiteke, alegia. Egiaztatuta baino, susmatuta dauden determinismo-kateak zalantzan jartzeak prospektiban jarduten duenaren kezka nagusietakoa izan behar du (Decouflé, 1972).



Faktorea

Beste hizkuntzetako baliokideak

Ingelesa: Factor ; variable

Frantsesa: Facteur

Alemana: Faktor

Gaztelania: Factor

Italiera: Fattore

Definizioa

Sistemari eragiten dion aldagaia, parametroa edo determinatzailea da faktorea; faktorea ezagutuz, sistemaren egoera ulertu eta haren bilakaera aurreikusi edo kontrolatu daiteke.

Iruzkina

Lurralde-prospektibaren alorrean, eragilea (hau da, pertsona edo erakundea) ez den kalitate- edo kantitate-parametro oro jotzen da faktoretzat. Faktore horiek bildu egin behar dira, lan-esparruan eta prospektibaren metodoen arabera (azterketa morfologikoa, egitura-azterketa, agertokiak, etab.) aztertzeko eta tratamenduak aplikatzeko. Faktoreak eta eragileak batera ere azter daitezke.

Sistema baten aldaketa-faktoreak prospektiba-tailerretan identifika daitezke; hala, sistemaren etorkizun posibleak zehatzeko erabiliko diren bilakaera-hipotesiak sortzeko gako-aldagaiak zehatzeko erabiliko dira, inertziekin batera.



Garapen iraunkorra

Beste hizkuntzetako baliokideak

Ingelesa: Sustainable development

Frantsesa: Développement durable

Alemana: Nachhaltige entwicklung, Zukunftsfähige, Entwicklung

Gaztelania: Desarrollo sostenible

Italiera: Sviluppo Sostenibile

Definizioa

«[...] oraingo beharrei erantzunez geroko belaunaldiak beren beharrei erantzuteko gaitasuna errespetatzen dien garapena» (Brundtland, 1987).

Iruzkina

Nozio horrek bi kontzeptu dauzka atxikita:

- "beharra"-ren kontzeptua, eta, batez ere, gabetuen funtsezko beharrarena, lehenetsuna haiei baitagokie.
- ingurumenak egungo eta geroko beharrei erantzuteko duen gaitasunari gure tekniken eta gizarte-antolaketa-aren egoerak ezartzen dizkion mugak (Brundtland, 1987).

Garapen iraunkorra ekonomikoki eraginkorra eta sozialki zuzena den eta ingurumena errespetatzen duen garapen-eredua da. Elkarren araberakoak eta zeharkakoak diren bost xede biltzen ditu, hiru euskarri hauen inguruan:

- klima-aldaketaren kontrako borroka eta atmosferaren defentsa; bioaniztasunaren babesa, inguruneen eta baliabideen kudeaketa;
- gizakiaren gogobetetasuna, bizi-kalitate ona eskainiz; enplegua, gizarte- kohesioa eta belaunaldien eta lurraldeen arteko elkartasuna;
- ekoizteko eta kontsumitzeko era arduratsuen araberako garapen-dinamikak.

Rioko eta Johannesburgeko gailurretan elkartutako nazioek proposatu zuten garapen iraunkorraren proiektuak, ezer baino lehen, lurteko erronka nagusiei erantzutea du helburu. Halere, erronka horietako batzuk lurralde mailakoak dira, eta ekintzak Agenda 21aren bidez erregistratzen dira. Agenda horrek Rioko Adierazpenean ezarritako printzipioen garapena dakar, ekintza-programatan banatuta: pobretasunaren eta gizarte-bazterketaren kontrako borroka, ondasun eta zerbitzu iraunkorren ekoizpena eta ingurumenaren babesa jorratzen ditu.

Frantziar, 1999ko lurralde-antolamendu eta garapen iraunkorrerako norabide-legeak (LOADDT) eta 2002tik martxan jarritako garapen iraunkorrerako estrategia nazionalak (SNDD) xede bera dute: lurraldeak eta politika publikoak garapen iraunkorren mesedera berreraikitzea.

Egun garapen iraunkorra zeharkako helburu eta xedetzat jotzen denez, metodo egoki gisa agertzen da prospektiba, bai helburu hori lortzeko, baita, batez ere, planteatutako erabakien epe luze-erako eraginak eta eragin sistemikoak neurtzeko ere.



Haustura

Beste hizkuntzetako baliokideak

Ingelesa: Rupture, discontinuity, breakdown

Frantsesa: Rupture

Alemana: Bruch, Tiefgreifende Änderung

Gaztelania: Ruptura

Italiera: Rottura, Discontinuità

Definizioa

Aldagai baten edo gehiagoren, edota sistema baten, eboluzioan inpaktu bortitza eragiten duen aldaketa handia.

Oharra

Oinarritzko logika inondik inora ezagutzen ez zaien jazoerekin erlazionatuta dago haustura. Definizioz, haustura bat ez da ex post gisa baizik onartzen.

Haustura gertatu eta gero, ezinezkoa da aurreko eredura (*pattern*) itzultzea.

Lurralde-mailako prospektiba-ariketen esparruan, izan litezkeen hausturak identifikatzea helburu garrantzitsua da, baina, maiz, zaila izaten da hori egitea. Hartara, lurraldeetako eragileek haustura jakin batzuk (hala nola tokiko enpresa nagusia ixtea eta abar) imajinatzeko zailtasun handiak izaten dituzte maiz.

Identifikazio-lan hori aztertzen den sistema deskribatzen duten eta, joera sendo eta haustura potentzialak oinarri harturik, izan litezkeen etorkizunak aurreikusten zaizkien aldagaien mailan gauzatzen da.

Beste definizio batzuk

Etenaldi bat da haustura —batzuetan, pixkanakakoa, baina, gehienetan bortitza—, eta hura gertatzea ez dute dagozkien eragileek nahita aukeratzen. Are sendoagoa da hiru ezaugarri hauek betetzen baditu: atzeraezina da, dagozkion eragileak harritu egiten ditu eta inpaktu handia du haien etorkizunean (Gabilliet, 1999).

Helburua

Beste hizkuntzetako baliokideak

Ingelesa: Foresight subject, aim, goal, global objective, operational objective, specific objective, intermediate objective.

Frantsesa: Objectif

Alemana: Ziel

Gaztelania: Objetivo

Italiera: Obiettivo

Definizioa

Estrategian erregistratu den xede zehatza, kualitatiboki edo kuantitatiboki identifikatzen dena eta gauzatze-denbora bat ematen zaiona.

Oharra

Garrantzitsua da, batetik, prospektiba-ariketaren helburuak bereiztea eta argi taxutzea ariketa prestatzeko orduan (eta hasi baino lehen) eta, bestetik, ariketaren fase prospektibotik ondorioztatzen diren helburu estrategikoak eta, horren ondorioz, etorkizun partekatua ikuspegia bereiztea eta argi taxutzea. Azken horiek berariaz adierazi behar dira eta argi erakutsi behar dituzte eragileen esku-hartzeen efektuak, inpaktuak eta ondorioak, eta, horrez gain, adierazleak eta/edo deskriptoreak izan behar dituzte. Bi helburu-mota bereiz daitezke: globalak, hots, ikuspegiaren asmoekin bat etortzera bideratuta daudenak eta, beraz, ardatz estrategikoek gauzatzen dituztenak; eta helburu operazionalak, hau da, ekintza estrategikoei esker lortzen direnak. Halaber, helburu espezifikak eta tarteko helburuak bereiz daitezke.

Heuristikoko

Beste hizkuntzetako baliokideak

Ingelesa: Heuristic

Frantsesa: Heuristique

Alemana: Heuristik

Gaztelania: Heurístico

Italiera: Euristico

Definizioa

Analisi zientifikoa eta asmakuntzan laguntzen duten tresna, kudeaketa eta prozedura intelektual guztiak.

Oharra

Zentzu hertsian, heuristikak ideiei edukia emateko gaitasuna du,

hau da, informazioa biltzeko, kritikatzeko, kontrolatzeko eta tratatzeko gaitasuna du, informazio hori ezagutza egoki gisa finkatze aldera, betiere egin beharreko ikerketaren helburuak kontuan hartuta.

“Ikuskeraren zientzia” eta “kudeaketa ergonomiko kognitiboa” proposatu zuenean, Herbert Simon (1916-2001) soziologo eta ekonomialariak erakutsi zuen nolako garrantzia duten ezagutzaren erakuntzan haztatzeak eta heuristikak, bai eta errealtatea hautemateko eta ulergarri bihurtzeko erabiltzen ditugun prozesuek ere (Newell eta Simon, 1972).

Beste definizio batzuk

Jazoerak agerian uzteko xede duen zientzia-arloa, bereziki historian, dokumentuen bilaketan, etab. (Lalande, 1976, 413. or.).

Hipotesia

Beste hizkuntzetako baliokideak

Ingelesa: Assumption, critical assumption, hypothesis, model

Frantsesa: Hypothèse

Alemana: Agertokien teknikan: Zukunftsprojektion, Ausprägung (von Schlüsselfaktoren). Orokorrean: Hypothese, Annahme

Gaztelania: Hipótesis

Italiera: Ipotesi

Definizioa

Horizonte jakin batean aldagai batek izango duen eboluzioaren postulatua.

Oharra

Aztergai dagoen sistema osatzen duten aldagaien eboluzioari buruzko hipotesiak zehazteak agertokiak eraikitzea ahalbidetzen du.

Aldagai bat arlo jakin bateko (demografia, ekonomia, teknologia, gizarte-gaiak eta abar) galdera gako baten erantzun egiantzekoa da.

Aldagai jakin baterako, bi hipotesi-kategoria taxutu daitezke: joera bat hasten duena (aldagaiaren atzera begirako azterketan nabarmendu diren joerei jarraitzen diena) eta aukerakoa (litezkeen haustura-elementuetan oinarritua).

Zenbait aldagaiaren hipotesiak gauzatzean agertoki bat osatzen da.

Agertoki bateko hipotesiek bost baldintza bete behar dituzte aldi berean: egokitasuna, koherentzia, egiantzekotasuna, garrantzia eta gardentasuna (Godet, Durance, 2007).

Beste definizio batzuk

Irudimenak ezagutzari aurrea hartzen dion uste zalantzagarri baina egiantzekoa; uste hori egiaztatu behar izaten da ondoren, dela zuzeneko behaketa bidez, dela ustearen ondorio guztiak behaketarekin bat datozelako (Lalande, 1976; 428-429. or.).

Horizontea

Beste hizkuntzetako baliokideak

Ingelesa: Time horizon, event horizon, timeframe

Frantsesa: Horizon

Alemana: (Zeit-) Horizont

Gaztelania: Horizonte

Italiera: Orizzonte

Definizioa

Azterketa prospektibo baten sistema deskribatzen duten aldagaien eboluzioari buruzko hipotesiak taxutzeko finkatzen den denbora-muga.

Oharra

Horizontea definitzeak ahalbidetzen du bi denbora-muga ezartzea ariketa prospektiboetan: esplorazioa eta, simetria bidez, atzera begirakoa.

Horizontea agertokiak taxutu baino lehen aukeratu behar da. Baina aukeratzea ez da erraza: horizontea behar beste luzatu behar da etorkizunerantz, aztertzen den sistema deskribatzen duten aldagaien eboluzio nabarmenak kontuan hartzeko, baina ez du luzeegia izan behar, eboluzio horiek ulergarriak izan daitezkeen. Lurralde-prospektibari buruzko ariketa baten esparruan, 15, 20 edo 25 urteko horizontea erabili ohi da. Sektore-prospektibaren kasuan, berriz, horizonte laburragoa (adibidez, informazioaren eta komunikazioaren teknologien kasuan) edo luzeagoa (energiaren kasuan) behar izaten dira.

Horizonte jakin bat zehazteak esan nahi du ondo neurtu behar direla eboluzioari buruzko hipotesiak taxutzerakoan nabarmen diren dinamikak berezko denborazkotasunak.



Ikuspegia

Beste hizkuntzetako baliokideak

Ingelesa: Vision

Frantsesa: Vision

Alemana: Vision

Gaztelania: visión

Italiera: Visione / Visioni

Definizioa

Etorkizun desiragarri baten termino zehaztutan banatutako eta deskribatutako irudia.

Oharra

Ikuspegia epe luzeko norabidea adieraz dezaketen eta ardurdun politikoen, alderdi interesatuen eta herritarren estrategia kolektiboa bideratu behar duten helburu eta xedez osatuta dago. Michel Godetek lau elementuz osatuta egon daitezkeen ikuspegi prospektiboa adierazi zuen: – helburuak, hau da, erakunde lortzen saiatzen den eta posibletzat jotzen diren xede orokorrak (prozesuaren eta idealaren ideia). – etorkizuna marrazten duten proiektu nagusiak. Ekintzetatik eta zehaztutako lanetatik ondorioztatutako efektuak dira, aurrera atera direnak (emaitzaren ideia). – balio partekatuen sistema. Alderdi interesatuak lotzen dituzten eta beren diferentziak ikuspegiaren bidea hartzeko eta ardatz estrategikoetan lan egiteko kudeatzea ahalbidetzen dien adierazpena da. – helburuak lortzeko borondate kolektiboa. Alderdi interesatuen kohesioaren eta etorkizun komuna eraikitzen saiatzeko erabakiaren adierazpena da. Horretarako, alderdi interesatuek ikuspegi agertu behar dute (Godet, 2007).

Prospektiba-lantegiak, mahai-inguruak edo herritarren foroak antolatzeari esker, denbora-horizonte jakin batekiko erantzun egituratuak (desiragarriak) eskatzen dituzten galdera gisa identifikatzen diren gaiak jorra daitezke. Erantzun desiragarri horiek kolektiboki eztabaida daitezke, haien egokitasuna eta egingarritasuna ebaluatzeko lantegien, mahai-inguruaren edo foroaren esparruan.

Ikuspegi komuna eraikitzeo segidak hainbat forma har ditzake: kolektiboki identifikatutako erantzun desiragarri osatutako ikuspegia, lurraldearen egoeraren zenbait alderdi adierazten dituzten agertokiak eta abar.

Beste definizio batzuk

Prospektiba-azterketetan balioak agertzeari buruzko eskeman, Eleonora Barbieri-Masinik jotzen du ikuspegia etorkizunerako hirugarren hurbilketa dela, estrapolazioaren eta utopiaren ondoren.

Ikuspegia proiektu baten sorkuntzako etapa bat ere bada, baldin eta aurretik borondatea (ikuspegia gauzatzeko ikustekoa) eta etorkizuna eraikitzeo gaitasuna (ikuspegia eratzea) badaude. Etorkizuna iraganeko eta oraineko datuen eta Bertrand de Jouvenelek deskribatutako facta direlakoan oinarrian dago eraikita, baina utopia (desiragarria edo beldurgarria) eta mundu errealekin lotzen duen artikulazioa ere gehitzen dira. Ikuspegiaren oinarrituta dago proiektua, ikuspegia ez baita proiektua bera: etorkizuneko proiektu bihurtzeko, beteko den borondate kontzientea behar da. Balioek betekizun garrantzitsua dute hurbilketa horretan, nahiz eta agian ez baldintza gabe, utopian ez bezala, modu kritikoa baizik, mundu errealekin bat (Eleonora Masini, 2000, 88. or.)

Inertzia

Beste hizkuntzetako balioak

Ingelesa: Inertia

Frantsesa: Inertie

Alemana: Beharrungsvermögen, Trägheit

Gaztelania: Inercia

Italiera: Inerzia

Definizioa

Dagokion sistemaren eboluzioa —aldaketekiko erresistentzia (oroimen-indarra) jarriz— moteltzen edo blokeatzen duen elementua.

Oharra

Azterketa prospektibo baten esparruan, inertiak modu kolektiboan identifika daitezke prospektiba-lantegi baten esparruan aldaketa-faktoreekin batera.

Aldaketa-faktoreak eta inertiak, materialak zein materiaga-beak, maiz elkartzen dira, aztertzen den sistemaren aldagai gakoan zati direlako.

Hugues de Jouvenelek nabarmentzen du prospektibagileak sarriegi uzten dituela kanpoan inertzia-faktoreak eta, besterik gabe, moteltzea eragiten duten faktoreak: adibidez, teknologia berriak erabiltzen hasteak maiz dakartzan gizarte- eta antolaketa-aldaketak eta trebetasun berriak. (Hugues de Jouvenel, 2002.)

Irudimena

Beste hizkuntzetako balioak

Ingelesa: Imagination

Frantsesa: Imagination

Alemana: Phantasie, Vorstellungskraft

Gaztelania: Imaginación

Italiera: Immaginazione

Definizioa


Ideiak osatzeko, irudikatzeo, asmatzeo edo konbinatzeko adimenaren gaitasuna.

Oharra

Prospektiba-metodoek irudimena sustatzeko helburu nabarmena dute. Baina, irudimena sustatzea ahalbidetzen duten arren, ez dute sorkuntza bermatzen.

Prospektibak arrazoa eta irudimena antolatzen ditu. Azken horretan eragin nabarmena du egungo gertakizunetatik askatzea ahalbidetzen duen denbora-esparrua aukeratzeak, bai eta etorkizun posible eta desiragarriak imajinatzeak ere.

Bertrand de Jouvenel-en (1903-1987) arabera, giza adimenean erazten diren irudiak honela sailka daitezke etorkizunera begira: (1) oraina eta iragana kontuan hartzen dituzten irudikapenak, edo facta direlakoak; (2) iraganeko edo oraineko inongo errealitate irudikatzen ez duten eta gugandik aldentzen ditugun buru-asmatutzak, (3) hein handian fantasia gisa; horietako gutxi batzuk gorde egiten ditugu (4), balio bat ematen diegu eta etorkizuneko errealitateetarako printzipioak izan daitezke. Fikzio horiek etorkizuneko kokatuta egon daitezke. Beste modu batean "faltsuak" baino izango ez liratekeen irudikapenak "posible" gisa jasotzeko gaitasuna duen esparru pribilegiatua da etorkizuneko denbora. Eta aukera horiek, orain betetzen dugun etorkizuna oinarri hartuta, eguneratu ditzagun "keinuak" egiten dizkigute (Bertrand de Jouvenel, 1964).



Jabetzea

Beste hizkuntzetako balioak

Ingelesa: Ownership, appropriation, internalization, assimilation, sharing

Frantsesa: Appropriation

Alemana: Aneignung, Internalisierung, Verinnerlichung

Gaztelania: Apropiación

Italiera: Appropriazione, Internalizzazione

Definizioa

Prospektiba-ariketa baten etapen ondorioak era intelektual eta afektiboan berenganatzeko eta horiez jabetzeko pertsona edo taldeek izaten duten prozesua.

Iruzkina

Prospektibaren alorrean, jabetze-prozesua zentrala da, aurrerazetik ekintzara pasatzea ahalbidetzen baitu. Prozesu horrek hausnartze, parte-hartze, erabakitze eta inteligentzia kolektiborako baliabideak aktibatzen ditu, eta ariketako parte-hartzaile guztien artean estrategiak adostea eta martxan jartzea ahalbidetzen du. Lurralde-prospektibaren alorrean, ekintzan nahasitako eragileak hizkera komuna garatzera, ikuspuntu guztiak aintzat hartzera, barneratzera eta lurraldeari buruz dituzten ikuspuntuak aldatzera bultzatu behar ditu jabetze-prozesuak, aurretiko azterketa-esparruekin kontrajarrita egon daitezken irakurketa-taulak eraiki eta, beraz, aukerako etorkizunak sortzea erraztuz.

Jasotako ideia

Beste hizkuntzetako baliokideak

Ingelesa: Convention, "common sense"

Frantsesa: Idée reçue

Alemana: Stillschweigende Voraussetzung

Gaztelania: Idea recibida

Italiera: Idea condivisa

Definizioa

Argudiatu beharrik ez dagoela jotzen dugun eta arrunki onartzen den ideia, funtsatua ez edo, positiboa edo negatiboa.

Oharra

Jasotako ideiak formalizatzea zeregin garrantzitsua da; izan ere, ideia horiek jarrerak, jokabideak eta adierazpenak moldatzeko gaitasuna dute. Erakunde edo lurralde bati buruz zirkulatzen duten jasotako ideien inbentarioa egitea interesgarria da, "pertzepzioaren" erregistroan sartzen direlako eta horrek eragileen jarrerak eta estrategiak moldatzen dituzten "sinesmen" eta "ez-esanak" agerian uztea ahalbidetzen duelako.

Ideiak funtsatuak izan ala ez, jasotako ideien analisiari esker, haien genealogia uler daiteke eta, batez ere, ideia horiek irauten dutenean sortzen diren ondorioak zehaztu daitezke. Anlisi horretatik asko ikas daiteke, jasotako ideia garrantzitsuenak baliosteko edo horien aurka egiteko abiatu beharreko ekintza-ideiak imajinatzen laguntzen duelako.

Joera

Beste hizkuntzetako baliokideak

Ingelesa: Trend

Frantsesa: Tendance

Alemana: Tendenz, Trend, Entwicklungsrichtung

Gaztelania: Tendencia

Italiera: Tendenza

Definizioa

Zenbait datu edo aldi jakin batean frogatutako eta erlazionatutako zenbait jazoeraren oinarrian egiaztatutako orientazioa.

Oharra

Joera emaitza bat da; eskuarki, ez indar bakarrarena, baizik eta elkartzen diren zenbait indarra. Hartara, arazoetako bat joekoan dauden indarrak, haiek sistemaren egoeran duten kokapena eta haien dinamika identifikatzea da. Joerak zentzu, intentsitate, abiadura eta iraupen jakin bat du, eta parametro horiek zehaztu egin behar dira. (Gonod, 2006, 7. or.). "Joera sendotzat" jotzen dugu denboran izango duen eboluzioa litekeen hipotesi bihurtu ahal izateko behar bezain zabala den eta behar bezainbeste luzatzen den fenomeno. Joera sendoak efektuagatik eta, bigarren mailan, iraupenagatik (epe luzera) bereizten dira beste joera batzuetatik. Agertokiak eraikitzean, joera sendoek bi mailatan esku hartzen dute: maiz, aldagai gisa gehitu ondoren, sistema bat deskribatzen eta azaltzen laguntzen duten faktoreak eratzen dituzte; bestalde, aldagaien litekeen eboluzioari buruzko "joerazko" hipotesien oinarritzko printzipioa sortzen dute.

Edgar Morinek "kontrajoera" aipatu zuen: joera identifikatuen aurkako erresistentziatzko kontramugimendua (Morin, 2002, 37. or.).

Beste definizio batzuk

Sistema jakin baten baitan gertatzen den eraldaketa neurgarri edo behagarria da joera, sistema horren etorkizuneko dinamika eta joeren hasiera markatzen duena (Gabillet, 1999, 167. or.).



Konplexutasuna

Beste hizkuntzetako baliokideak

Ingelesa: Complexity

Frantsesa: Complexité

Alemana: Komplexität

Gaztelania: Complejidad

Italiera: Complessità

Definizioa

Sistema bat konplexua dela esaten da haren osagaiak oso korapilatuta daudenean eta osagai horien arteko elkarrekintzak oso bereziak direnean, hain bereziak non ulertzen zailak baitira eta jokabidea aurreikusezina baitaukat.

Iruzkina

Lurralde-prospektibaren bidez, konplexutasun hori argitu daiteke eta, aldi berean, dakarren ziurgabetasuna murriztu, batik batik nahigarrien alorra jorratuz.

Pierre Gonoden iritziz, prospektibaren eraikinaren hiru euskarrietako bat da konplexutasuna; beste biak diziplinartekotasuna eta sistemika-modelizazioa dira (Gonod, 1996, 13. or.).

Sistema baten jokabideen balizko aurreikusezintasunak (aurrez kalkulatu ezinak) zehazten du konplexutasun-maila, eta ez osagaien ugaritasunak, ezta haien arteko harremanak ere. Hala, sistemaren jokabideak zehatz eta ia osoki zenbatu ahal izateak esan nahi du sistema konplikatu edo hiperkonplikatu dela. Kasu horretan, jokabideen konbinazioak zenbatuz, jokabide posible guztiak zehaztu daitezke, eta, beraz, une oro jokabide efektiboa zein den aurreikus daiteke, baldin eta kudeatzen dituen araua edo programa ezagutzen bada. Edgar Morin-en iritziz (1999), sistema bat konplexua da sistemaren osagaiak (ekonomikoa, politikoa, afektiboa, mitologia, etab.) *banaezinak direnean, eta ezagutza-gaiaren eta haren testuinguruaren artean —sistema osoaren eta osagaien artean, eta osagaien beraien artean— interakzio-ehuna eta dependentzia-ehuna dagoenean (complexus hitzak elkarrekin ehunduta esan nahi du). Konplexutasuna, beraz, unitatearen eta ugaritasunaren arteko lotura da.* Prospektiba-planteamenduen alorrean aztertutako sistemeten eta agertzen diren arazoaren konplexutasuna dela eta, metodo zorroztzak erabili behar dira.



Lurralde-adimena

Beste hizkuntzetako baliokideak

Ingelesa: Strategic Policy Intelligence, Regional Intelligence

Frantsesa: Intelligence territoriale

Alemana: (ez dago baliokide zuzenik)

Gaztelania: Inteligencia territorial
Italiera: Intelligenza territoriale (sapere, conoscenza)

Definizioa

Lurralde batek bere garapena, gobernantzia eta biderapena ziurtatzeko dituen analisi-tresna eta -metodoen multzoa.

Oharra

Kontzeptu hori bat dator Europako prospektibari loturiko ekimen ugarietan ageri den diziplinarteko ugaritasunarekin. Hartara, Steinbeis Europa-k Stuttgarten bideratutako *Knowledge Regions 2 Regstrat* proiektuak (2006-2007) ebaluazioaren, prospektibaren eta *Technology Assessment* delakoaren arteko elkarizketa sortu du, *Strategic Policy Intelligence* izenarekin.

Halaber, 2005ean Europako Batzordeko hiru zuzendaritza nagusiek (Ikerketarako Zuzendaritza Nagusia, Enpresetarako Zuzendaritza Nagusia eta Eskualde Politikarako Zuzendaritza Nagusia) Eskualdeen Batzordearekin abiarazi zuten *Mutual Learning Platform* proiektuak mahai-ingurura ekarri ditu prospektibaren, *benchmarking*-ean eta eskualde-profiletan adituak diren hainbat aditu. Eskualde-adimenaren Europako sarea ere aipa genezake, informazio geografikoko sistemak eta lurralde-diagnostikoak balioesten baititu.

Lurralde-adimenaren kontzeptua oraindik nahiko zabala den arren, lau osagai aurkitu ohi dira:

- eragileen elkarrekiko antolaketa bat, lurraldean finkatuta dauden sarea osatzen duena;
- informazioa eta ezagutzak biltzen, trukatzeko eta tratatzeko oinarritzen den lan-prozesua;
- garapen iraunkorrari eta lurraldeen erakargarritasunari eskainitako arreta berezia;
- lurraldeko alderdi interesatuak barne hartzen dituen lan kolektiboa.

Lurralde-prospektiba ez da lurralde-adimenaren tresna bakarra. Baina, diziplinarteko tresna izaki, toki garrantzitsua du tresna horietan, agian berak ere asko aipatzen dituelako "eskualdezientziak".

Lurralde-gobernantzia

Beste hizkuntzetako baliokideak

Ingelesa: Governance, decision making

Frantsesa: Gouvernance territoriale

Alemana: Governance (gutxi erabilia), Strukturen und Prozesse der territorialen Entscheidungsfindung

Gaztelania: Gobernanza

Italiera: *Governance* territoriale

Definizioa

Lurralde berean dauden eragileen (erakunde publiko, enpresa pribatu, gizarte zibilaren elkarte, etab.) interesak koordinatzeko prozesua. Horren bidez, agintari politikoek lurralde horretako administrazio- eta garapen-arazoei heltzen diete, esku hartzen duten alderdien arteko negoziatioaren eta araudiaren bidez konpontzeko.

Iruzkina

Hiru egiaztapen hauek sortzen dute gobernanzaren kezka:

- Agintari politikoek ez dute erantzukizun guztia. Araudi-modu berriak proposatuz politika, ekonomia eta gizartearen uztartzeko erantzun posible bat da gobernantzia.
- Era askotako eragileek erabakitze prozesuan sartzea eskat-

zen dute, eta eragile horiek arazo kolektiboentzako irtenbide berriak proposa ditzakete. Estatuaren, gizarte zibilaren eta merkatuaren artean gertatzen den erantzukizun-mugimendu hori nabarmendu nahi du gobernantzak.

- Eragile bakar batek ere ez ditu arazoak bakarrik konpontzeko behar diren ezagutzak eta bitartekoak. Beharrezkoa da eragile heterogeneoen artean interakzio-/negoziatio-prozesu errepikakorrek gertatzea. Horrenbestez, gobernantzak parte hartzea, negoziatzea eta koordinatzea dakar berekin.

Europako Batzordeak Liburu zuria idatzi zuen (2001) gobernantzia egokiaren printzipioak biltzeko; esan behar da gobernantzia-maila guztiei aplikatzen zaizkiela printzipio horiek: erakundeak irekiak eta gardenak izatea; herritarren parte-hartzea ahalik eta handiena izatea erabaki politikoaren fase guztietan; erakundeen eta Europar Batasuneko estatuaren erantzukizuna areagotzea; helburu argi eta ebaluagarriekin definitutako politiken eraginkortasuna; politikarien koherentzia eta ulermena.

Deszentralizazio-prozesuari eta lurralde-antolamendu berriek eskaintzen dituzten aukera berriei esker (herrialdea, herriartekotasuna, etab.), gobernantzia berri bat adierazteko leku pribilegiatu dira lurraldeak; hala, prospektiba-planteamendua oinarria da, eta, hala, inteligentzia kolektiboa katalizatze funtsezko rola du (Bailey, 2005).

Beste definizio bat(zuk)

"[...] *banakoek eta erakunde publiko eta pribatuak denek arazoak kudeatzeko dituzten askotariko moduen multzoa. Askotariko interes gatazkatsuen artean lankidetzan aritzeko eta horiek moldatzeko prozesu jarraitua da. Erakunde ofizialak eta botere betearazlea duten erregimenak ere sartzen dira, bai eta adostasuna lortu duten jende eta erakundeen konponbide informalak ere*". (Munduko Gobernanzaren Batzordea).



Paradigma

Beste hizkuntzetako baliokideak

Ingelesa: Paradigm

Frantsesa: Paradigme

Alemana: Paradigma

Gaztelania: Paradigma

Italiera: Paradigma

Definizioa

Komunitate jakin bateko kideek partekatzen dituzten sinesmen, balio eta sistema kognitiboaren multzoa osatzen duen funtsezko ideia edo printzipioa.

Oharra

Paradigma hitza batez ere zientzien epistemologian erabiltzen den kontzeptua da. *The Structure of Scientific Revolutions* lanean (1962) Thomas Kuhn fisikari amerikarrak (1922-1996) honela definitu zuen paradigma: galdera, behaketa eta emaitzen interpretazio-multzoaren inguruan ikertzaile-komunitateak onartutako oharrei jarraituz lortutako adostasun zientifikoa.

Nazioarteko harremanen etorkizuneko eboluzioari buruzko *On*

Alternative World Futures (1966) lanean, Herman Kahn prospektibagile amerikarrak (1922-1983) honela definitu zuen paradigma: arazo jakin baterako esparru kontzeptualak, ereduak eta erlazioak, orobat dagozkion metodo eta ikuspegiak, hornitzeko helburua duen gai, hipotesi, tipologia, kontzeptu, ohar, sailkapen, deskribapen, definizio eta abarren berariazko multzoa. Maila kontzeptualean, irudiaren eta ereduaren artean geratzen da paradigma; irudia baino zorrotzagoa, landuagoa, konplexuagoa eta egokiagoa da, baina ez da eredu analitiko bezain osoa edo zorrotza. Eredura al bait gehien hurbildu nahi du, informazioaren mugak eta analisi-aukerak kontuan hartuta (Hetman, 1969).

1999an Unescoren "Garapen iraunkorrerako hezkuntza" programaren esparruan aurkeztutako manifestu ospetsuan, Edgar Morin soziologoak baieztatu zuen XXI. mendean ez zela baliozkoa "Mendebaldearen paradigma handi" hura, hau da, Descartesek XVII. mendean agertu eta XX. mendean bukaeraraino kapitalismo industrialaren kultura osoan nagusitu dena. Unescoren bildutako komunitate zientifiko eta intelektualak onetsitako manifestu horren arabera, paradigma arrazionalistak ezin ditu jada errealitatea ezagutzeko eta eraldatzeko gizakiaren ahaleginak orientatu. Hain zuzen ere, manifestuak errealitatea ezagutzeko eta eraldatzeko funtsezko ideia berria proposatzen du: ziurgabetasunaren eta konplexutasunaren paradigma.

Beste definizio batzuk

Garai jakin batean baliagarria izaki, paradigma bat egungo mundua ulertzeko eskema da. Maiz nagusi den ikuspegia irudikatzen duen eredu bat da, eraikuntza artifizial bat.

Perimetroa

Beste hizkuntzetako baliokideak

Ingelesa: Perimeter

Frantsesa: Périmètre

Alemana: Bereich, Umkreis

Gaztelania: Perímetro

Italiera: Perimetro

Definizioa

Prospektiba-jarduera batek oinarri dituen den leku-mugak.

Oharra

A priori, ez dago prospektiba-jarduera bat abiatzeko eremu zehatzik. Lurraldea barruti politiko edo administratiboa baldin bada eta ekimena arduradun politiko edo administratiboek bultzatzen badute, nahiko argi daude jarduera gauzatzeko baldintzak.

Dinamika prospektiboak asko mugatu gabeko eremu batean ere gara daitezke, eragileetatik hasita (herritarrek, erakundeak, udalerrriak, enpresak eta abar), logika endogenoaren arabera, administrazio publikoaren baimenarekin edo gabe. Gogoan izan lurralde egoki bat, beste edozeren gaintetik, eragileak sarean antolatuta, etorkizunera proiektatu eta garapen-proiektu komuna taxutzeko gaitasuna duen lurraldea dela. Hartara, diagnostiko prospektiboaren oinarrian, posible bada, ariketako partaideek perimetroa zehazten dute.

Preaktibitatea

Beste hizkuntzetako baliokideak

Ingelesa: (ez dago zuzeneko baliokiderik) Anticipative

Frantsesa: Préactivité

Alemana: (ez dago zuzeneko baliokiderik) Präaktiv (nahiko ezo-

hikoa), Präaktives Verhalten

Gaztelania: Preactividad

Italiera: (ez dago zuzeneko baliokiderik) Predditivo (nahiko ezo-hikoa)

Definizioa

Gerta litezkeen aldaketak kontuan hartzean eta horietarako prestatzean oinarritzen den jarrera.

Oharra

Etorkizunera begira har daitezkeen jarreretako bat da preaktibitatea: pasibitatea, erreaktibitatea, preaktibitatea eta proaktibitatea. Preaktibitatean, esploratu egin behar da, aurreikuspenak egite aldera, eta urrats prebentibo estrategikoak ere egin behar dira.

Beste definizio batzuk

Arriskuen ondorioez, egoera "itxiez", eragile ez-kohesiboen logikaz jabetu gabe maniobra-marjina murriztuak aurreikustea (Guy Loinger, 2007-2)

Proaktibitatea

Beste hizkuntzetako baliokideak

Ingelesa: Proactive

Frantsesa: Proactivité

Alemana: Proaktivität (oso gutxitan erabiltzen da), Proaktives Verhalten

Gaztelania: Proactividad

Italiera: Proattività, essere proattivi

Definizioa

Aldaketak eragitean datzan jarrera.

Oharra

Etorkizunera begira har daitezkeen jarreretako bat da proaktibitatea: pasibotasuna, erreaktibotasuna, preaktibitatea eta proaktibitatea. Ingurune estrategikoaren gaineko ekintza boluntarista da, aurrerapen-lanaren oinarrian gauzatua.

Beste definizio batzuk

Proaktibitatea arriskuak aurreikustean datza, eta haiek gertatzeko probabilitate handiko egoerak saihesteko baliabideak jartzean, esku-hartze estrategikorik ezean (Loinger, 2007-2).

Probabilitatea

Beste hizkuntzetako baliokideak

Ingelesa: Probability, likelihood

Frantsesa: Probabilité

Alemana: Wahrscheinlichkeit

Gaztelania: Probabilidad

Italiera: Probabilità

Definizioa

Jazoera, agertoki edo eboluzio baten izaera posiblearen neurketa, gertatzeko aukeraren kalkuluaren bidez gauzatzen dena.

Oharra

Probabilitateak, batez ere, hipotesi eta/edo jazoeren probabilitate sinple eta baldintzazkoak zehazteko helburua duten inpaktu gurutzatu probabilisten metodoaren esparruan erabiltzen dira, orobat hipotesi eta/edo jazoeren konbinazioen probabilitateak zehazteko helburua dutenetan, jazoeren eta/edo hipotesien arteko interakzioak kontuan hartuta.

Metodo horien helburua ez da, agertoki egiantzekoenak nabarmentzea bakarrik arduradunari, baizik eta a priori kanpoan utzi

diren hipotesi-konbinazioak aztertzea ere (Godet, Durance, 2007).

Beste definizio batzuk

"Jazoera baten izaera ausazkoa kuantitatiboki zenbatesteko aukeraturako zenbakizko magnitudea" (Boll, 1971).

Proiektua / Lurralde-proiektua

Beste hizkuntzetako baliokideak

Ingelesa: Regional project, regional design

Frantsesa: Projet, Projet de territoire

Alemana: Projekt

Gaztelania: Proyecto / Proyecto territorial

Italiera: Progetto / Progetto per il territorio

Definizioa

Etorbizun desiragarriaren eta hori lortzeko estrategien irudikapen eta adierazpena.

Oharra

Lurraldean jokoan dauden gaien erantzuteko ekintza-plana da lurralde-proiektua, baita hori eraikitzea eta bereganatzea ahalbidetzen duen prozesu kolektiboa ere. Emaizta eta prozesua izendatzeko erabiltzen da:

- lurraldeko alderdi interesatuek —enpresak, botere publikoak— (hautetsiak, funtzionarioak eta teknikariak)— egiten duten bidea, guztien artean balioetan, xedeetan eta borondate komunean oinarritutako etorkizunaren ikuspegi banatua eraikitzeko.
- lurraldean gaur egun eta etorkizunean jokoan dauden gaien erantzuteko epe motzeko, ertaineko eta luzeko plana, guztiek banatzen dutena eta lurralde-kontratu edo -gutun batean ageri dena, eraginkortasunez abiarazteko baldintzak, eragingo diren giza eta finantza-baliabideak eta zuzentze- eta ebaluazio-sistemak zehaztuz.

Giza multzo bat bizi den lurra da lurraldea, non multzo horren jarduera sozialak arau, lege, kultura eta antolaketa politiko eta instituzional bidez egituratuta dauden. Gizarte baten bizitokia da lurraldea (eta ez bizi-esparrua), non gizartearen zati bakoitzak toki jakin bat betetzen baitu. Gizarte-eraikuntza bat da lurraldea eta, eskuarki, historian eraturako gizarte-eraikuntza bat. Lurralde bat, ezer baino lehen, toki jakin bateko giza lana da (Loinger, 2007-2).

Programazioa / Plangintza

Beste hizkuntzetako baliokideak

Ingelesa: Planning

Frantsesa: Programmation, planification

Alemana: Planung

Gaztelania: Programación, planificación, planeación

Italiera: Programmazione / Pianificazione

Definizioa

Gauzatu beharreko ekintzak eta horiei dagozkien baliabide-esleipenak denboran erregistratzea.

Oharra

Plangintza honela defini daiteke: etorkizun identifikatu bat lort-

zeko behar diren baliabide zehatzak berehala abiaraztea. Programazioa eta plangintza prospektibaren fase estrategikoan sartzen dira, non ardatz eta ekintza estrategikoak abiaraztea bermatzen baita. Bi kasuetan, estrategiak abiarazteko ekintza-plan zehatza garatzen da.

Proiektzioa

Beste hizkuntzetako baliokideak

Ingelesa: Projection, forecast, extrapolation

Frantsesa: Projection

Alemana: Projektion

Gaztelania: Proyección

Italiera: Proiezione

Definizioa

Iraganeko joeren etorkizuneko luzapen edo inflexioa.

Oharra

Pierre Massé-k proiektzioaren eta prospektibaren arteko erlazioak aurreikuspenaren bi modu bereiziz analizatu ditu: *batak orain arte izandakoarenaren luzapena zer izango den jotzen du, eta besteak etorkizuna lurralde ezezaguna balitz bezala esploratzen du; bata etorkizunean iraganaren proiektzio soilak ikusten du, eta bestearentzat iraganeko proiektzioek ezin dute etorkizuna osatu. Ikuspegi horiek onartzen baditugu, proiektzioa eta prospektiba aurrerapenaren muturreko bi modu gisa hartzen ditugu, erabat izaera desberdineko adimen-eragiketekin bereizten direnak: batetik, behatutako itxuren aurrean men egitea; eta, bestetik, a priori, irudimenak toki gehiago duen analisi sakona. Prospektiba eta proiektzioa desberdinak dira, azken hori oso landua izanagatik ere; izan ere, prospektiban postulatu guztiak zalantzan jartzen dira, etengabekotasun ikusgaiaren baitan aldaketa sekretua bilatzen duelako (Massé, 1960, HETMANek aipatua, 1969, 207. or.). Nabarmentzekoa da, batez ere demografoentzat, proiektzio bat estrapolazio bat baino gehiago dela. Teknika espezifikoak aplikatuz egindako simulazioa da proiektzioa.*

Prospektiba

Beste hizkuntzetako baliokideak

Ingelesa: Foresight, future studies, futures thinking, anticipation

Frantsesa: Prospective

Alemana: Foresight, Zukunftsforschung, Zukunftsgestaltung

Gaztelania: Prospectiva

Italiera: Previsione, Prospettiva

Definizioa

Jakintza-alorrez haraindi eta kolektiboki egindako proiektu independente, dialektiko eta zorrotza, iraganeko eta etorkizuneko gaiak argitzeko helburua duena, alde batetik, horien esparru holistikoa, sistemikoa eta konplexuan kontuan hartuz eta, bestetik, historikotasunaz haratago, denborazkotasunean kokatuz.

Oharra

Esploratu egiten duenez, prospektibari esker eboluzioaren joerak eta kontraerak ikusi, inguruneke aldagaien jarraitasunak, hausturak eta adarkatzeak identifikatu (eragileak eta faktoreak) eta etorkizun posibleen sortak zehaztu egin daitezke.

Araue-maila denez, prospektibari esker, etorkizun desiragarrien ikuspegiak eraiki daitezke, baita estrategia kolektiboak eta esku-hartzeko egon litezkeen logikak ere. Hartara, hartu beharreko erabakien kalitatea hobetu egiten da.

1990ko hamarkadaren bukaeran, batez ere Europako Batzordea-

ren ikerketarako zuzendaritza orokorrak bultzatuta, egiazko bateratasun-dinamika garatu zen aukera teknologikoen ebaluaziotik sortutako *foresight* anglosaxoiaren eta ekintzaren filosofiak zehazten duen prospektiba frantses eta latindarraren artean. Berrikuntza-politikan alderdi sozialak gero eta gehiago kontuan hartzeak, ziurrenik, asko lagundu du prozesu horretan. Hala, gaur egun, ematen du *foresight* eta prospektiba, lehen baino gehiago, jarrera bat edo baliabide global bat direla, ez ikerketa-metodo hutsa.

Beste definizio batzuk

Egungo ekintza etorkizun posible eta desiragarriak ikusita argitzeko helburua duen aurrerapena (preaktiboa eta proaktiboa). *“Gizakiak aurreratzeko duen behar etengabearen forma moder- noa, arrazionaltasuna eta irudimena lotzen dituena. Filosofia dialektikoan, sistemikoan eta jakintza-alorren artekoasunean oinarritzen da eta izaera zientifikoko tresnak erabiltzen ditu”* (Gonod, 1998).

Prospektiba-jarduera

Beste hizkuntzetako baliokideak

Ingelesa: Futures thinking

Frantsesa: Activité prospective

Alemana: (zuzeneko baliokiderik ez)

Gaztelania: Actividad prospectiva

Italiera: (zuzeneko baliokiderik ez)

Definizioa

Oraina argitzeko etorkizunean oinarritzen den eta hainbat prospektiba-tresna eta -metodotan oinarritzen den taldekako azterketa-, ikerketa- eta hausnarketa-ekintza antolatua.

Iruzkina

Prospektiba-jarduera teknikarien jarduera da (ikerlariena, ministerio eta elkarte publikoetako eragileena, kontsulariarena eta abar), prospektiba-jarrera ez bezala, azken horrek xede unibert-sala baitu. Prospektiba-jarduera —dela azterketakoa, ikerketa-koa edo metodologia-laguntzazkoa— lanbidearen ebaluazioaren, kalitate-kontrolaren, deontologiaren eta etikaren mende dago.

Beste definizio batzuk

Prospektiba-jarduera da etorkizuneko irakurketa-etaulak sortzea uneko azterketa-taulekin kontrajarrita, erabaki bat hartzen laguntzeko (Roubelat, 1996).

Prospektiba-jarrera

Beste hizkuntzetako baliokideak

Ingelesa: Baliokiderik ez

Frantsesa: Attitude prospective

Alemana: (baliokide zuzenik ez), Zukunfts-offene Haltung / Einstellung

Gaztelania: Actitud prospectiva

Italiera: Approcci al futuro

Definizioa

Iraganeko eta etorkizuneko epe luzea kontuan hartu, sistema osoa bereizketarik gabe planteatu eta ekiteko gaitasunak eta baliabideak era kolektiboan planteatzean datzan postura intelektuala.

Iruzkina

Gaston Bergerren iritziz (1959, 270-275. or.), diziplina edo meto-

doa baino gehiago jarrera bat da, eta bost betebeharretan oinarrituta dago:

1. *Urrutira begiratzea: prospektiba-jarrerak urrutira begirarazten digu. Kausen ondorioak gero eta azkarrago sortzen diren garai honetan, ezinezkoa da martxan dauden ekintzen berehalako ondorioak soilik hartzea kontuan [...].*
2. *Zabal begiratzea: giza gaietan, ekintza oro, erabaki oro, sintetiko da. Aurreko gertakari guztiak barne hartzen ditu, eta are gehiago urrutirako begiradetan eta, egun bezala, elkarren arteko mendekotasuna etengabe handitzen ari den mundu honetan. Estrapolazioak arriskutsuak izan daitezke abstraktuak direla ahaztuz gero. Adituen begirada hertsia gaitzeko eta etorkizun urruneko egoera bat zehatz deskribatzeko, prestakuntza eta erantzukizunak eta esperientzia duten pertsonen arteko bilera baino hoberik ez dago [...].*
3. *Azterketa sakona egitea: [...] azeleratzen ari den mundu batean, ohituren eremua asko murrizten da. Aurreko horrek dena errepikatzen den lekuan baino ez du balio. Analogia horrek soilik balio dezake zergati sakonak erraz ezagutzen diren kanpo-formatan aurkitzen diren mundu egonkor batean [...] Hortaz, prospektiban, azterketa sakona egin behar da. Benetan erabakigarriak diren faktoreak eta pertsonak, batzuetan oharkabean, norabide jakin batera bideratzen dituzten joerak bilatzea [...].*
4. *Arriskuak hartzea: aurreikuspenean eta prospektiban ez dira metodo berak erabiltzen. Ez dituzte, beraz, pertsona berek martxan jarri behar. Prospektiban askatasuna dago; ez dago, beraz, larritasunak dakarren obligaziorik. [...] Konpromisoen ezberdintasuna dela eta, prospektiba-ikerketa kementsua izan daiteke —eta izan behar du— [...]. prospektibazko ikuspegiaren askatasunarekin batera, zuhurtzia behar da berehalako ekintzetan [...].*
5. *Gizakia gogoan izatea: alderdi askotatik, prospektibak historiaren antza dauka. [...] Bai bata, bai bestea, berez ez dauden gertakari buruzkoak dira: iragana ez da gehiago existitzen, etorkizuna oraindik ez, biak bizitzatik kanpo daude. Historiak bezalaxe, prospektibak giza gertakariak baino ez ditu azterten. Gertakari kosmikoak eta teknikaren hobekuntzak kontuan hartzen ditu, baina gizakiarengan eragina dutelako soilik.*

Beste definizio batzuk

Gerora, prospektiba-jarreraren beste hiru osagai gehitu dira: *bestela begiratzea* (aurreiritziez mesfidatzea eta berritzailea izatea), elkarrekin begiratzea (jabetzea) eta *ahalik eta metodo zorrotz eta parte-hartzaileenak erabiltzea* talde-inkoherentzia saihestezinak gutxitzeko (Godet, 2007).

Prospektiba-jarrera determinismoaren zamari eta zoriari aurre egiteko izpiritutik sortu zen; beraz, halabehararen (Jouvenel, 2004) eta zoriaren (Massé, 1965) kontrako jarrera da, borondatearen indarrak daramana, eta *helburua nahia gauzatzea duena* (Godet, 2007).

Prospektiba-tailerrak

Beste hizkuntzetako baliokideak

Ingelesa: Foresight workshops, scenario breakout groups

Frantsesa: Ateliers de prospective

Alemana: Zukunfts-Workshop

Gaztelania: Talleres de prospectiva

Italiera: Seminari di prospettiva

Definizioa

Ahalmen sortzailean eta parte-hartzean oinarritutako taldekako lan-saioak, helburu zehatz batekin antolatutak (bilakaera martxan jartzea, erronkak zehaztea, etab.), prospektiba-planteamendua- ren esparruan.

Iruzkina

Prospektibak konplexutasuna jorrazteko zorroztasuna behar du. Halere, tresna nahiko errazak ere behar ditu; hau da, jabetzeko modukoak. 80ko hamarkada erdiaz geroztik, prospektiba estrategikoko tailerrak zabaldu dira kezka horiei erantzuteko. Tailer horien jomugak dira gaia ondo zehaztea eta haren inguruko arreritziak baztertzea. Hala, prospektiba-tailerretan lurraldearen etorkizuneko erronka nagusiak taldeka identifikatu eta hierarkizatzen dira, tokiko, nazioko eta nazioarteko inguruneari begira. Tailerretatik landa, parte-hartzaileek jakin behar dute lehentasunak, helburuak eta egutegia zehazten, eta prospektibazko hausnarketa antolatzekeko sortutako metodologiak jabetuta egon behar dute.

Prospektiba-tailerretan banakako eta taldeko lana txandakatzen dira, eta bakoitzaren adierazpena ahalbidetzen da. Irudimena askatuz, etorkizuneko aldaketak aurreratzea helburu duen prospektiba-prozesurako ezinbestekoa den ahalmen sortzailea martxan jartzen dute tailer horiek.

Prozesua

Beste hizkuntzetako baliokideak

Ingelesa: Process, disruptive process

Frantsesa: Processus

Alemana: Prozess

Gaztelania: Proceso

Italiera: Processo

Definizioa

Espero den emaitza bat emango duten eragiketen multzo jarraitu eta ordenatua.

Oharra

“Prozesuak, sistema baten egoerak sortzen dituztenak, propietateak dituzten fenomeno agregatu eta denboran antolatutak dira, eragileek aktibatzen dituztenak. Egoeraren, denboraren eta eragileen baldintza-hirukoa da. Prozesuen jatorria sistemako zenbait maila izan daitezke: azpisisistemak, osagaiak eta elementuak. Maila edozein izanik ere, prozesuaren ideia eboluzioaren ideiarekin erlazionatuta dago; prozesuak egoeraren deskribapeneko “hautemandako mundutik” “eragindako mundura”, fenomeno dinamikoetara, igaroarazten du” (Gonod, 2006, 32. or.). Prospektiba alderdi interesdunak estrategia baten sorkuntza eta jabetzea ikusita sortzen duen dinamikara lotzen dituen ikaskuntza kolektiboko prozesua da. Halaber, antolaketa-ikaskuntza gogorarazten du. Kontzeptu horrek hainbat alderdi ditu eta, batetik, antolaketa- eta ikaskuntza-alderdiak nabarmentzen dituzten ikuspegiaren arteko bereizketa gauzatuan eta, bestetik, antolaketa berezko ezagutzak nabarmentzen dituzten bereizketan oinarrituta dago. Lehen kasuan, antolaketa-ikaspenari buruz arituko gara eta ikaskuntzaren aldeko ingurunea sor dezaketen antolaketa-kategoriei buruz galdetzen saiatuko gara. Beste ikuspegiaren, ikaskuntza erakundeetan gauzatutako prozesu gisa nabarmenduko dugu.

Beste definizio batzuk

Mugitzen ari diren fenomeno dinamikoaren sekuentzia da prozesua. Sistemak sortzen den materiaren, energiaren edo informazioaren denborako aldaketa oro da, eta sarrera-aldagai horiek (input) tratatu eta irteera-aldagai (output) bihurtzen ditu. (Jean-William Lapiere, 1992; Gonodek aipatua, 1996, 32. or. – Serge Diebold, 2007).



Seinale ahula

Beste hizkuntzetako baliokideak

Ingelesa: Weak signals, seeds of change

Frantsesa: Signal faible

Alemana: Schwaches Signal

Gaztelania: Señal débil

Italiera: Segnale debole

Definizioa

Gertatuko den aldaketa baten adierazlea, etorkizuneko eboluzioa aurreratzea eta deskribatzea ahalbidetzen duena.

Oharra

Seinale ahul bat joera baten hasiera edo bukaera edota haustura bat adierazten duen fenomeno egiaztatzeak erazten du.

Etorkizuna dakarten jazoerek ez bezala, seinale ahul batek litezkeen etorkizunak murriztu ditzake, joera sendo baten bukaera iragarri.

Sistema

Beste hizkuntzetako baliokideak

Ingelesa: System

Frantsesa: Système

Alemana: System

Gaztelania: Sistema

Italiera: Sistema

Definizioa

Sistemaren egitura mantentzeko antolatuta dauden eta interakzio dinamikoan dauden elementuen multzoa da sistema.

Oharra

“Metodo analitikoan, elementu desberdinen konplexutasuna murriztu egiten da; metodo sistemikoan, berriz, guztia berriro konbinatzen da metodoko elementuak oinarri hartuta, haien independentzia eta denboran izandako eboluzioa kontuan hartuta. Zibernetikaren, informazio-teoriaren eta biologiarren bateratasunetik sortzen da sistemika. Ezagutzak ekintza-eraginkortasun handiagoa lortzeko antolatzea ahalbidetzen duen metodologia berri gisa definituko nuke. Hurbilketa hori sistemen azterketan erabiltzen da”. Joël de Rosnay, Réconcilier la partie et le tout, (Danzin eta Mazurel, 2005, 98-99. or.).

Prospektibak sistemaren ideia erabiltzen du osotasunaren irakurketa lehenesteko, zatien irakurketa baino gehiago. Batez ere agertoki-metodoen esparruko irudikapen-mota horiek erabiltzen ditu eboluzio-hipotesien xede diren esparru koherentetan eta aldagaitan deskonposatzeko (egiturazko analisisa).

Beste definizio batzuk:

Proiektua sistema orokor batek konplexutzat hautematen edo asmatzen dituen fenomenoaren eredu-metodoak taxutzean eta gatzatzean datza sistemika (Diebold, 2007, 10. or.).



Utopia

Beste hizkuntzetako baliokideak

Ingelesa: Utopia
Frantsesa: Utopie
Alemana: Utopie
Gaztelania: Utopía
Italiera: Utopia

Definizioa

A priori eginezina edo ezinezkoa ematen duen irudikapena, sistema edo proiektua.

Oharra

Terminoak grezierako *u* aurrizkiak (ez) eta *topos* (tokia) hitzak osatzen dute. "Inon ere ez" esan nahi du. Thomas More (1478-1535) humanista ingelesa izan zen kontzeptu hori erabiltzen lehena, *De optimo rei publicae statu, deque nova insula Utopia* bere lan nagusiaren izenburuan (1516). Lan hori herrialde idealaren, gobernu-forma onenak zuzentzen duen herrialdearen, defentsa da eta herrialde hori "Utopia izeneko uharte berri" batean kokatu zuen. Nolanahi ere, *Errepublika* lanean, Platonek (K.a. 428-348) justizia bizitza sozialaren eta erakundearen erdigunean zegoen etorkizuneko gizartearen deskribatu zuen (Barbieri-Masini, 1993, 4. or.).

Utopiak beste egoera bat lortzeko gaitasuna du. Deialdi- eta mobilizazio-indar gisa jarduten du. Fase bat da, pizgailu bat, imajinazioa sustatzea ahalbidetzen duen prospektibaren motarra.

Utopiak ikuspegia baino iraultzaileagoa da eta unibertsalagoa den alderdi bat du. Aldaketa sakon baten, mutazioen, hazia du. Alderdi global bat du, eta nekez aplikatu daiteke erakunde edo lurralde batean (nahiz eta hiri-utopia ugari ezagutzen ditugun); bai, ordea, gizarte batean. Definizioz, ezin da gauzatu.

Beste definizio batzuk

Modu idealean antolatuta eta gobernatuta dagoen eta errealitateak kontuan hartzen ez dituen gizartearen ikuspegia.



Xedeak

Beste hizkuntzetako baliokideak

Ingelesez: Ultimate aims
Frantsesa: Finalités
Alemanez: Leitziel, Ziel, Finalität, Endzweck
Gaztelania: Finalidad
Italieraz: Finalità

Definizioa

Ikuspegi prospektiboaren osagai izateaz gain, xedeak jomuga orokor desiragarriak dira, eta epe luzean betetzeko modukotzat jotzen dira. Helburuak ardatz estrategiko bihurtzen saiatuko gara.

Iruzkina

Erakunde baten buruzagiek eta eragileek ematen duten ikuspegiaren parte dira erakundearen edo lurraldearen xedeak. Xede desiragarriak definitzeko aukera ematen dute. Prozesu estrategikoaren esparruan, orientazio estrategikoak eratzten laguntzen dute.

Gizon-emakumeak suspertzea xede duten kontingentzia- eta al-daketa-printzipioen osagarri da xede-printzipioa: haien ekintzei zentzua ematea eta jomuga ezartzea da kontua (Godet, 2007). "Helburu" edo "jomuga" terminoak baino asmo handikoagoa da "xede" kontzeptua. Banakako nahiz taldeko giza ekintzaren bektore dira.

Eragileak nor diren eta haien xedeak zein diren jakitea da prospektibaren xedea.



Ziurgabetasuna

Beste hizkuntzetako baliokideak

Ingelesa: Uncertainty
Frantsesa: Incertitude
Alemana: Ungewissheit, Unsicherheit
Gaztelania: Incierto
Italiera: Incertezza

Definizioa

Sistema baten edo sistema baten zati baten hautemangarritasuna onartzea, horren konplexutasun-egoeraren eta izan dezakeen eboluzioak zati batean bederen duen ausazko izaeraren eraginez.

Oharra

Etorkizunaren aurreko ziurgabetasuna dela eta, ez dago etorkizun posible bakarra, zenbait etorkizun posible baizik. Ziurgabetasunaren alderdi subjektiboa (behar beste ez ezagutzea) eta objektiboa (gertakariak) bereizi egin behar dira. Prospektibak bi kezka horiei erantzuten die; lehenari, ezagutza-prozesua eratu; eta bigarrenari, berriz, etorkizun posible eta desiragarriak kontuan hartuz, aukera estrategikoen arteko aukera argitu eta dau den ziurgabetasun ugariei aurre egitea ahalbidetzen baitute, erakunde eta lurraldeen testuinguru orokorrean, eta batez ere epe luzean.

Etorkizunarekiko ziurgabetasun globala gertagarrien esparrua banatzen duten agertoki-kopuruaren bidez zenbatetsu daiteke. Printzipioz, kopuru hori zenbat eta handiagoa izan, orduan eta ziurgabetasun handiagoa egongo da. Baina printzipioz bakarrik; izan ere, agertokiaren arteko eduki-diferentzia ere kontuan hartu behar da (aukera gehien dutenak oso gertu egon daitezke). Ziurgabetasuna ahula bada, hau da, gertuko agertokiaren kopuru mugatu batek gertagarrien esparru gehiena kontzentratzen badu,

bi aukera egin daitezke: estrategia arriskutsua (gertatzeko aukera gehien duten agertokien aldeko apustua eginez) edo litezkeen eboluzio gehienak ondo jasan ditzakeen estrategia sendoa. Ziurgabetasuna handia bada, komeni da aukera atzera-garri gehienak barne hartuko dituen estrategia malgua hartzea. Hemen, arriskuan jartzeari uko egitea da arriskutsua, bai eta unerren batean oso onuragarriak izan daitezkeen aukera arriskutsuei uko egiteko estrategia hartzea ere, arriskuak bezain ahulak diren irabaziak aukeratzeko (Godet, Durance, 2007). Aldaketa baten inpaktua, horren probabilitatea (egiantzekotasun-maila, ziurtasun-maila) eta gaitasuna ere islatzen ditu ziurgabetasunaren ideiak.

Metodologikoki, esparru jakin bati buruzko ziurgabetasun nagusiek galdera gako asko planteatzen dituzte, hainbeste ezen prospektiba-eriketa batean erantzun baitaitezke. Hartara, taxututako hipotesiak dira erantzun posibleak.

Inpaktu gurutzatu probabilisten metodo analitikoek (hala nola Smic-Prob-Expert metodoak) ziurgabetasuna zati batean murriztea ahalbidetzen dute. Hain zuzen ere, metodo horiek probabilitate sinpleak eta hipotesien eta/edo jazoeren mendekoak zehazteko helburua dute, bai eta azken horien konbinazio-probabilitateak zehaztekoa ere, jazoeren eta/edo hipotesien arteko interakzioak kontuan hartuta.

Beste definizio batzuk

Eleonora Barbieri-Masini-k erlazio bat ezarri zuen ziurgabetasunaren eta gizarteen konplexutasunaren artean. Donald Schon eta Yehezkel Dror-en lanetan inspiratuta, Eleonora Barbieri-Masini dio, ziurgabetasunaren posizioan, konplexutasuna deskribatzen duten aldagaiak ez direla ezagunak, eta ez dugula horiei probabilitateak lotzeko aukerarik. Bestetik, Eleonora Barbieri-Masini lehen mailako ziurgabetasuna eta bigarren mailako ziurgabetasuna bereizten jarraitzen du. Lehen mailako ziurgabetasuna asaldura absolutuaren eredutik gertu dago; bigarren mailako ziurgabetasunean, berriz, egungo egoeren ondorioak ezagutzen ditugu, baina ezin dugu probabilitaterik zehaztu. (Barbieri-Masini, 2000, 76. or.).

Bibliografia



Ansoff, Igor (1989): *Stratégie du développement de l'entreprise : une approche méthodologique du management stratégique*, Les Éditions d'organisation; 1. edizioa, 1965

Bailly, Jean-Paul (2005): *Prospective territoriale et action publique, Futuribles*, 314. zk., abendua

Barbieri-Masini, Eleonora (1993): *Why Futures Studies?*, Londres, Grey Seal

Barbieri-Masini, Eleonora (2000): *Penser le futur, L'essentiel de la prospective et de ses méthodes*, Paris, Dunod

Berger, Gaston (2007) (1955): «L'homme et ses problèmes dans le monde de demain. Essai d'anthropologie prospective», *De la Prospective*, L'Harmattan, «Prospective» bilduma, «Mémoire» seriea

Berger, Gaston (2007) (1959): *L'attitude prospective, De la Prospective*, L'Harmattan, «Prospective» bilduma, «Mémoire» seriea

Bernoux, Philippe (1990): *La sociologie des organisations*, Seuil

Boyer, Luc, Equilbey, Noël (1990): *Histoire du management*, Les Éditions d'organisation, coll. E.O. Sup

Brundtland, Gro Harlem (zuz.) (1987): *Rapport de la Commission mondiale sur l'environnement et le développement*, gobernuarteko prestatze-batzordeko lehendakariaren aurrean aurkeztu zena, Nazio Batuen Ingurumen Programaren Administrazio Batzordea, martxoaren 10a.

Cazes, Bernard (2007): *Histoire des futurs. Les figures de l'avenir de Saint Augustin au XXI^e siècle*, L'Harmattan, «Prospective» bilduma; 1. edizioa, 1986.

Clar, Günter; Acheson, Helena; eta beste (2007): *Strategic Policy Intelligence: Tools for Better Policy Making in Europe's Regions*. Guide (70. or.), Compendium (150. or.), Stuttgart.

Clar, Günter; Destatte, Philippe (2006): *Regional Foresight, Boosting Regional Potential*, Mutual Learning Platform, Regional Foresight Report, Europako Batzordea – Eskualdeen Batzordea

Crozier, Michel; Friedberg, Erhard (1977): *L'acteur et le système*, Seuil

Europako Batzordea (2001): *Gouvernance européenne: un Livre blanc*, Com (2001) azken 428

Europako Batzordea (2002): *Guide pratique de prospective territoriale en France*, Ikerketarako Zuzendaritza Nagusia

Cornish, Edward (2004): *Futuring, The Exploration of the Future*, Bethesda, Maryland, World Future Society

Danzin, André eta Masurel, Jacques (2005): *Teilhard de Chardin, visionnaire du monde nouveau*, Paris, Editions du Rocher

Decouflé, André-Clément (1972): *La prospective*, Presses universitaires de France

Delamarre, Alette (2002): *La prospective territoriale, «Territoires en mouvement» bilduma*, DATAR, Frantziako Dokumentazioa

Destatte, Philippe (2006): *Guide pour mener un exercice de prospective territoriale*, Plateforme d'Intelligence Territoriale Wallonne, Institut Destrée, DGATLP, <http://www.intelliterwal.net/Documents.htm>

Destatte, Philippe (zuz.) (2001): *Évaluation, prospective et développement régional*, Institut Destrée

Destatte, Philippe; Van Doren, Pascale (zuz.) (2003): *La prospective territoriale comme outil de gouvernance*, Institut Destrée

Diebold, Serge (2007): *Le petit lexique des termes de la complexité, constitué à partir des travaux de Jean-William Lapierre et de Jean-Louis Le Moigne*, <http://www.mcxapc.org> 4/11/2007.

Durance, Philippe; Godet, Michel; Mirenowicz, Philippe; Pacini, Vincent: *La prospective territoriale, Pour quoi faire ? Comment faire ?*, CNAM, Cahier du Lipsor, *Recherche seriea*, 7. zk., 2007ko urtarrila; Sylvie Esparre-en hitzaurrea, Diact.

Fink, Alexander; Siebe, Andreas (2006): *Handbuch Zukunftsmanagement, Werkzeuge der strategischen Planung und Früherkennung*, Frankfurt / New York.

Foucault, Michel (1969): *L'archéologie du savoir*, Gallimard, «Bibliothèque des Sciences humaines» bilduma.

Gabilliet, Philippe (1999): *Savoir anticiper. Les outils pour maîtriser son futur*, ESF

Gaudin, Thierry eta L'Yvonnet, François (2003) *Discours de la méthode créatrice*, Gordes, Ose savoir - Le Relié

- Godet, Michel; Durance, Philippe (2007)** *Prospective stratégique : problèmes et méthodes*, CNAM, Cahier du Lipsor, 20. zk., 2. edizioa.
- Godet, Michel (2007):** *Manuel de prospective stratégique*, Dunod, 2 liburuki, 4. edizioa.
- Gonod, Pierre (1996):** *Dynamique des systèmes et méthodes prospectives*, coll. *Travaux et recherches de prospective*, 2. zk., Paris, Futuribles International, LIPS, DATAR
- Gonod, Pierre (2001):** *L'amont de la prospective territoriale*, 2001eko iraila.
- Goux-Baudiment, Fabienne (2000):** *Donner du futur aux territoires, Guide de prospective territoriale à l'usage des acteurs locaux*, Lyon, Certu.
- Hartog, François (1995):** *Temps et histoire; Annales, Economies, Sociétés, Civilisations*, 1995eko azaro-abendua..
- Hetman, François (1969)** *Le langage de la prévision*, SEDEIS
- Hines, Andy eta Bishop, Peter (2006)** *Thinking about the Future : Guidelines for Strategic Foresight*, Washington, Social Technologies LCC.
- Jouvenel, Bertrand, de (1964):** *L'art de la conjecture*, SEDEIS ; 2. edizioa, 1972.
- Jouvenel, Hugues, de (2004):** *Invitation à la prospective*, Futuribles, «Perspectives» bilduma.
- Kosseleck, Reinhart (1990):** *Le futur passé, Contribution à la sémantique des temps historiques*, Paris, Seuil.
- Lalande, André (1976):** *Vocabulaire technique et critique de la philosophie*, Paris, Puf.
- Lapierre, Jean-William (1992):** *L'analyse des systèmes, L'application aux sciences sociales*, Paris, Syros.
- Lazarsfelt, Peter eta Bauer, R.:** *Social Indicators*, Cambridge, Mass., MIT Press, 1966.
- Loinger, Guy (2007):** *Notions essentielles de prospective générale et appliquées aux territoires, Première partie*, Eskuizkribua, 2007ko iraila, 30. or.
- Loinger, Guy (2007-2):** *Éléments de méthodologie de la prospective territoriale*, CIPF de Nancy / Pont à Mousson, 2007ko urriaren 24a.
- Loinger, Guy (zuz.), Durance, Philippe (lag.) (2004):** *La prospective régionale, De chemins en desseins*, L'Aube, Datar.
- Loinger, Guy eta Spohr, Claude (2004):** *Prospective et planification territoriale: état des lieux et propositions*, CPVS, 19. koaderno.
- Lugan, Jean-Claude (2006):** *Lexique systémique et prospective*, Toulouse, Pirineo erdialdeko eskualdebatzorde ekonomiko eta soziala, Prospektiba-atala.
- Marrou, Henri-Irénée (1954):** *De la connaissance historique*, Paris, Seuil.
- Massé, Pierre (1960):** *Prévision et prospective, Prospective*, 5. zk., 1960ko maiatza.
- Massé, Pierre (1965):** *Le plan ou l'anti-hasard*, Gallimard, NRF, «Idées» bilduma.
- Massé, Pierre (1973):** «*De Prospective à Prospectives*», *Prospectives*, Presses universitaires de France, 1. zk., ekaina.
- Montbrial, Thierry, de (1990):** *Que faire?*, La Manufacture.
- Morin, Edgar (1999):** *Les sept savoirs nécessaires à l'éducation du futur*, Seuil.
- Morin, Edgar (2002):** *Pour une politique de civilisation*, Paris, Arlea.
- Newell, Allen eta Simon, Herbert A. (1972):** *Human problem solving*. Englewood Cliffs, NJ, Prentice-Hall.
- Nicolescu, Basarab (2006):** *La transdisciplinarité, genèse, finalité et enjeux*, HECV Osasunari buruzko jardunaldi zientifikoko hitzaldia 2006, La transdisciplinarité, entre mythes et réalités, Lausanne, 2006ko urriaren 19a.
- Prigogine, Ilya; Stengers, Isabelle (1979):** *La Nouvelle Alliance, métamorphose de la science*, Gallimard, «Bibliothèque des Sciences humaines» bilduma.
- Prigogine, Ilya (2006):** «Les jeux ne sont pas faits», *Lettres aux générations futures*, Federico Mayor-ek bildutako testuak, Roger-Pol Droit-ekin lankidetzan, Unesco.
- Reibnitz, Ute von (1989):** *La technique des scénarios*, Paris, Afnor.
- Reinbitz, Ute Hélène von (2007):** *Il y a toujours une alternative*, Paris, Economica.
- Roubelat, Fabrice (1996):** *La prospective stratégique en perspective: genèse, études de cas, prospective*, CNAM, Lips, doktoretza-tesia.
- Stengers, Isabelle (zuz.) (1987):** *D'une science à l'autre. Des concepts nomades*, Seuil.
- Vasquez, Javier Medina (2004):** *Vision compartida de futuro*, ed Programa, Editorial, Universidad del Valle, Cali.
- Veyne, Paul (1971):** *Comment on écrit l'histoire*, Seuil, «Points» bilduma, «Histoire» seriea.

Baliabide eta esteka erabilgarriak

Pentsamendu konplexuaren aldeko elkartea, "Konplexutasunaren eredugintza" programa europarra, "Prospektiba eta konplexutasuna" lantegia.

Lantegi horren proiektua da konplexutasuna eta ziurgabetasuna pentsatzeko moduaren bidez prospektiba berritzen laguntzea, zibilizazio-proiektuak sortzen lagundu dezan. Prospektibari buruzko testu ugari online eskuratu daitezke, eta horietako gehienak Pierre F. Gonnodena dira.

<http://www.mcxapc.org>

Lurraldeen ordenamendu eta lehiakortasunerako ministerioarteko ordezkariak (DIACT)

2005ean Pierre Mirabaud ordezkariak eskatutako DIACTen lurralde-prospektibako baliabide-zentroak prospektibagileak eta ikertzaileak deitzen ditu, eta aldi berean behin zenbait ministerioarteko ministerio eta ordezkariaren "Prospektiba" ekipoak biltzen ditu. Horrez gain, eskualde-prefekturako azterketa-zerbitzuak ere elkartzen ditu, horiek koordinatzen baitituzte lurraldean deszentralizatutako egituren jarduera, lurralde-kolektibitateak (eskualdeak eta horien kontseilu ekonomiko eta soziala, departamenduak, aglomerazioak), kontsulatu-ganberak eta elkarteak (hirigintza-agentziak, ur-agentziak eta abar). Partaidetza horri esker posible da metodoari buruzko galderak trukatzera eta gaietan sakontzea, bakoitzaren prospektibakimenez uneko egoeraren arabera. DIACTen webguneko "Prospektiba" izenburuan, bertsio osoan, eragile bakoitzak onartzen dituen lan berrienak ikus daitezke, erabat dohainik.

Halako lankidetzak tokiko garapen-estrategiak taxutzen laguntzen du; horri esker, lurralde-garapenerako eta ordenamenduko eskualde-eskemen baitan (SRADT) edo orientazio- eta plangintza-dokumentu handietan birdefinitzen dira.

<http://www.diact.gouv.fr/>

FOR-LEARN

(DG Joint Research Center, IPTS)

Europako Batzordearen ikerketaren esparru-programan babestutako plataforma. Prospektibari buruzko lineako gida baten eta lantegien bidez ikaskuntza komuneko prozesua garatzeko helburua du.

<http://forlearn.jrc.es/>

Parisko Arte eta Ofizioen Kontserbatorio Nazionaleko ikerketa prospektiborako, estrategiarako eta antolaketarako laborategia (Lipsor)

Lipsor-en baitan, Kontserbatorioko Prospektiba Industrialeko Katedra prospektibaren irakaskuntzaren eta ikerketaren europar zentro nagusietako bat da 1982az geroztik. Lipsor-en libreki eskuratu daitezke prospektibaren metodo eta tresnetatik sortutako prospektiba estrategikoko softwareak, eta, orobat, bestelako zenbait baliabide ere (Lipsor-en koadernoak, prospektibaren memoriako dokumentuak).

<http://www.lapropective.fr>

FUTURIBLES

Egungo munduari buruzko hausnarketa prospektiboa egiteko azterketa-zentro independentea da. Futuribles zentroak modaren efektuz haratago aztertzen du duela 40 urte baino gehiagotik hona zein diren egiazko egiturazko elementuak eta litezkeen etorkizunak. Non daude ziurgabetasunak? Joera sendoak? Etorkizuna dakarten jazoerak? Maniobra-marjinak? Futuribles taldeak zaintza- eta aurreikuspen-funtzio hori zenbait jardueraren bidez gauzatzen du (azterketak, informazioa, edizioa, prestakuntza, Vigie sistema).

www.futuribles.com

Blueprints for Foresight Actions in the Regions

Maila goreneko aditu talde bat sortu zen (HLEG) 2003an, Europar Batzordeko Ikerketa-zuzendaritza Nagusiaren ekimen gisa. Talde horren helburua zen egoera jakinei (teknologia-transferentzia, landa-eskualde gutxietsiak eta abar) zegozkien eskualde-prospektibako ariketen eskemak egitea.

http://ec.europa.eu/research/conferences/2004/foresight/index_en.html

Country Specific Practical Guides to Regional Foresight

Europako Batzordeko Ikerketa Zuzendaritza Nagusiak 2000ko hamarkadaren hasieran egindako ariketak balioresten dituen herrialde europar bakoitzeko prospektiba-gidak egitea agindu zuen. Gida horiek FOREN sarearen ereduaren arabera egin ziren.

<http://cordis.europa.eu/foresight/cgrf.htm>

European Foresight Monitoring Network (EFMN) Batez ere gai zientifikoetan, teknologikoetan edo berrikuntzan espezialistak diren prospektibako adituen Europako sarea. Europako Batzordeak mantentzen du (Eskualdeen Zuzendaritza Nagusia). Webgune horretan, prospektibaren esparruko ekimenei buruzko informazioak biltzen dira batez ere.

<http://www.efmn.info>



Handbook of Knowledge Society Foresight

Lan hori 2001 eta 2004 bitartean gauzatu zen Manchesterko PREST taldearen zuzendaritzapean, *European Foundation for the Improvement of Living and Working Conditions* ekimenaren esparruan. Lanaren helburua zen ezagutarantz orientatutako gizarte baten lortzeko ekartzen dituzten aldaketak deskribatzea eta aurreikustea.

<http://www.eurofound.europa.eu/publications/htmlfiles/ef0350.htm>

Intelligence territoriale wallonne

Destrée Institutuak garatutako ikerketa-zentro horren helburua da Waloniako eskualde-garapena eta think tank europarra aztertzea, Walonia eskualdeko Lurralde Ordenamenduko Ministerioaren zuzendaritza nagusiarekin lankidetzan. Webgune horretan, lurralde-prospektibako esperientziak deskribatzen eta aztertzen dira, eta ariketak bideratzeko eta ebaluatzeko gida bat proposatzen da.

<http://www.intelliterwal.net/>

Mutual Learning Platform

Ikaskuntzako elkarrekiko plataforma (Mutual Learning Platform) Europako Batzordearen (Enpresetarako Zuzendaritza Nagusia, Ikerketarako Zuzendaritza Nagusia, Eskualdeen Zuzendaritza Nagusia) eta Eskualdeen Batzordearen ekintza bateratu eta zeharkakoa da. Plataforma garapen estrategikoko hiru tresnatan oinarritzen da eta, batez ere, eskualde-prospektiban, eskualdeei Lisboako helburuetan garapenaren bidez laguntzea ahalbidetzeko.

http://www.innovating-regions.org/network/presentation/projects.cfm?project_id=9

Observatoire des Territoires

DIACTen *Observatoire des territoires* (Lurraldeen behatokia) atariaren asmoa da organismo publikoek sortutako lurralde-informazioen aukeraketa jende gehiagoren eskura jartzea. Ministerioarteko esparruan sortutako webguneak biltzen ditu, eta lurralde-antolamendurako eta -garapenerako politika publikoen inguruko galderei, gaiei edo lurraldeei edota jokoan dauden gaien ezaugarriei buruzko informazioa jasotzen du.

http://www.territoires.gouv.fr/indicateurs/portail_fr/index_fr.php

European Spatial Planning Observation Network (ESPON)

1994an ezarritako Europako organismoen arteko lankidetzak. Erkidego-espazioa garatzeko eskemaren prestakuntza-esparruan sortu zen, Europako lurraldeen joerak hobeto ezagutzeko eta analisi-metodoak hobeto bideratzeko.

<http://www.espon.public.lu/fr/>

Lurralde-inteligiaren Europako sarea

Lurralde-inteligiaren sarean lurralde-inteligiaria zabaltzen parte hartzen duten unibertsitate-ikerketako taldeak eta lurralde-eragileak biltzen dira. Lurralde-egiturak eta -dinamikak ulertzen laguntzen duten diziplina anitzeko ezagutzak garatzeko helburua du.

<http://mti.univ-fcomte.fr/reit/accueil/fmpro?-db=REITActu.fp5&-format=bienvenue.html&-lay=fiche&-view>

Lurralde Prospektibaren Europar Elkargoko kideen zerrenda – 2008ko abuztua

Mika Aaltonen (FI) Kidea
Démosthène Agrafiotis (GR) Kidea
Eleonora Barbieri Masini (IT) Kide urgazlea
Nathalie Bassaler (FR), Kidea
Colin Blackman (GB) Kide urgazlea
Ane Bustinduy (ES) Kide urgazlea
Stuart Candy (AU) Kide urgazlea
Riccardo Cinquegrani (IT) Kidea
Günter Clar (DE) Kidea
Joseph Coates (US) Kide urgazlea
Stéphane Cordobès (FR, DIACT) Kidea
Peter Desmedt (BE) Kidea
Philippe Destatte (BE) Kidea
Júlio G. Dias (PT) Kidea
Philippe Durance (FR) Kidea
Gundula Englisch (DE) Kide urgazlea
Alexander Fink (DE) Kide urgazlea
Elizabeth Florescu (RO) Kide urgazlea
Adam Gerber (US) Kide urgazlea
Michel Godet (FR) Kidea
Pierre Gonod (FR) Kide urgazlea
Kaïs Hammami (TN) Kidea
Rolf Jensen (DK) Kide urgazlea
Hugues de Jovenel (FR) Kidea
Khaled Kaddour (TN) Kide urgazlea
Michaël Keenan (UK) Kidea
Guy Loinger (FR) Kidea
Pierre-Jean Lorens (FR) Kidea
Derek Martin (NL) Kide urgazlea
Michal Miedzinski (PL) Kidea
Riel Miller (FR) Kidea
Francisco-José Mojica (CO) Kide urgazlea
Florian Muzard (FR, DIACT) Kidea
Carina Nalerio (UY) Kide urgazlea
Erzsebet Novaky (HU) Kide urgazlea
Erik F. Øverland (NO) Kidea
Ute-Hélène von Reibnitz (FR) Kidea
Jose Manuel Ribeiro (PT) Kide urgazlea
Saphia Richou (FR) Kidea
Gerda Roeleveld (NL) Kidea
Maria-Angels Roque (ES) Kidea
Alioune Sall (ZA) Kide urgazlea
Fabiana Scapolo (EC IPTS) Kidea
Wendy Schultz (UK) Kide urgazlea
Karlheinz Steinmüller (DE) Kidea
Kimon Valaskakis (GR) Kidea
Javier Medina Vásquez (CO) Kide urgazlea
Ibon Zugasti (ES) Kidea

Aurkibidea



Adarkatzea	10	Lurralde-gobernantza	25
Adierazlea	10	Paradigma	25
Adimen kolektiboa	10	Perimetroa	26
Agertokia	10	Preaktibitatea	26
Ahalmen sortailea	11	Proaktibitatea	26
Aierua	11	Probabilitatea	26
Aldagaia	11	Proiektua/Lurralde-proiektua	26
Alderdi interesatua	12	Programazioa	27
Arazoa/Problematika	12	Proiektzioa	27
Atzera begirakoa/Historia	12	Prospektiba	27
Aukera	13	Prospektiba-jarduera	28
Aurreikuspena	13	Prospektiba-jarrera	28
Aurrerapen-agertokia/Backcasting-a	13	Prospektiba-tailerrak	28
Aurreratzea	14	Prozesua	29
Azterketa morfologikoa	14	Seinale ahula	29
Bilakaera	14	Sistema	29
Delphi metodoa	15	Utopia	29
Denborazkotasuna	15	Xedea	30
Diziplina-zeharkakotasuna	15	Ziurgabetasuna	30
Ebaluazioa	16		
Egitura-azterketa	16		
Eragilea	16		
Eragin gurutzatuen azterketa	17		
Erreaktibitatea	17		
Erronka	17		
Eskala	17		
Estrapolazioa	18		
Estrategia eta taktika	18		
Etenaldia	18		
Etorkizun desiragarriak	19		
Etorkizun posibleak	19		
Etorkizuna	19		
Etorkizuna dakarren gertakaria	20		
Faktorea	20		
Garapen iraunkorra	20		
Haustura	21		
Helburua	21		
Heuristiko	21		
Hipotesia	21		
Horizontea	22		
Ikuspegia	22		
Inertzia	23		
Irudimena	23		
Jabetzea	23		
Jasotako ideia	23		
Joera	24		
Konplexutasuna	24		
Lurralde-adimena	24		